

# HAURRAK HEZKIDETZAILEA DEN IKUSPEGI BATETIK HEZTEKO BEHARRA

---

Gradu Amaierako Lana

**Egilea:** Ane Palomo Jaka

**Zuzendaria:** Iraide Fernández Aragón

2019-2020

# HAURRAK HEZKIDETZAILEA DEN IKUSPEGI BATETIK HEZTEKO BEHARRA

**Ane Palomo Jaka**

**UPV/EHU**

Historian zehar emakumeok desberdintasuna bidelagun izan dugu eta izaten jarraitzen dugu, izan ere, desberdintasun sozialez beteriko gizarte batean bizi gara. Eskolan ere, sozializazio espazioa den aldetik, gauzak ez dira desberdinak. Egoera hau kontuan hartuz, lan honen helburua Lehen Hezkuntzan gertatzen diren genero-desberdintasunak ezagutzea eta ulertzea da. Horretarako, txantilioi eta landa lan baten bitartez Lehen Hezkuntzako 2.mailako talde baten behaketa sistematikoa egin da. Emaitzak kualitatiboki aztertu ostean ondorio nagusi batzuk atera dira, eta salbuespenak salbuespen, hurrengoak islatu da: gizartean dauden genero desberdintasunak eskolan islatzen direla, ikasle zein irakasleek gizarteak inposatutako genero estereotipo eta jarrera jakin batzuk erreproduzitzen dituztela eta Lehen Hezkuntzako gelatan erabiltzen diren material eta eduki asko sexistak direla. Hau ikusita, hezkidetzaren bidean aurrera egiten jarraitu behar dela argi geratu da, baita zeregin horretan irakasleok erantzukizun handia dugula ere.

*hezkidetza, generoa, estereotipoak, Lehen Hezkuntza*

A lo largo de la historia las mujeres hemos acompañado y seguimos acompañando la desigualdad ya que vivimos en una sociedad llena de desigualdades sociales. En la escuela, como espacio de socialización, las cosas tampoco son diferentes. Teniendo en cuenta esta situación, el objetivo de este trabajo es conocer y comprender las desigualdades de género que se producen en Educación Primaria. Para ello, se ha realizado una observación sistemática de un grupo de 2º de Primaria mediante una plantilla y un trabajo de campo. Tras el análisis cualitativo de los resultados, se han extraído algunas conclusiones generales que, salvo excepciones, han reflejado lo siguiente: que las desigualdades de género en la sociedad se reflejan en la escuela, que el alumnado y el profesorado reproducen determinados estereotipos y actitudes de género impuestas por la sociedad y que muchos de los materiales y contenidos

utilizados en las aulas de Primaria son sexistas. A la vista de esto, se ha demostrado que hay que seguir avanzando en el camino de la coeducación y que el profesorado tiene una gran responsabilidad en esta tarea.

*coeducación, género, estereotipos, Educación Primaria*

Throughout history, women have accompanied and continue to accompany inequality as we live in a society full of social inequalities. In school, as a space of socialization, things are not different either. Taking into account this situation, the aim of this work is to know and understand the gender inequalities that occur in Primary Education. For this purpose, a systematic observation of a group of 2nd Primary has been carried out using a template and a field work. After the qualitative analysis of the results, some general conclusions have been drawn, which, with exception, have reflected the following: that gender inequalities in society are reflected in school, that students and teachers reproduce certain stereotypes and attitudes of gender imposed by society and that many of the materials and contents used in the classrooms of Primary are sexist. In view of this, it has been shown that progress has to be made on the path of coeducation and that teachers have a great responsibility in this task.

*coeducation, gender, stereotypes, Primary Education*

## AURKIBIDEA

1. Sarrera eta justifikazioa	4
2. Marko teoriko eta kontzeptuala	5
3. Helburuak eta metodologia	11
4. Testuingurua	13
5. Emaitzak	18
5.1. Ikasleak	18
5.2. Irakasleak	21
5.3. Materialak eta edukiak	24
6. Ondorioak	27
7. Bibliografia	29
8. Eranskinak	34
a. Dimentsioak	34
b. Txantiloia	35
c. Landa lana	36

## 1. Sarrera eta justifikazioa

Desberdintasun sozialez beteriko gizarte batean bizi garen garai hauetan, pertsonalki emakume bezala genero desberdintasunaren gaia oso gertukoa egiten zait. Inbisibilizazioa, sumisioa, sufrimendua, gutxiespena... Historian zehar emakumeok desberdintasuna bidelagun izan dugu eta izaten jarraitzen dugu, eta eskolan ere, sozializazio espazioa den aldetik, gauzak ez dira desberdinak izan, genero desberdintasun hori oso antzemangarria baita, esaterako, testuliburueta irakurgaietan, patioaren antolaketan edota haurren jarreretan. Hau esanda, gure etorkizunaren jabe direnez, haurrak txikitatik berdintasunean hezteko ezinbestekoa dela deritzot, eta horretarako irakasleok ikuspegi hezkidetzaille batetik irakatsi beharko genuke, modu horretan gizon eta emakumeon desberdintasunak murriztu eta gizarte justuagoa eraikitzen hasiko baikara.

Hala bada, lan honen helburua behaketa sistematikoaren bitartez Lehen Hezkuntzan gertatzen diren genero-desberdintasunak ezagutzea eta ulertzea da, hau lortzeko aurrerago aipatzen diren zenbait azpi helburu finkatu direlarik. Lana aurrera eramateko marko teoriko eta kontzeptual sakon bat sortzeaz gain, finkatutako helburu, azpi helburu eta erabilitako metodologia zeintzuk izan diren azalduko dut, baita lana egiteko izan dudana testuingurua zein izan den ere.

Hala ere, lanaren oinarri nagusia praktikumean egokitu zaidan Lehen Hezkuntzako 2. mailako ikasle taldearen inguruan egindako behaketa da, bertan hauek eskolan dauzkaten jarrera, harreman eta ikuspegiak ez ezik, euren irakasleen jarrerak eta erabiltzen dituzten materialak ere modu kritikoan aztertu baititut. Halaber, behaketa horri esker lortutako emaitzetatik ateratako ondorioak zeintzuk izan diren azalduko dut. Amaitzeko, Gradu Amaierako Lan hau burutzeko erabilitako iturri bibliografiko zein estatistikoak aipatu, eta behaketan aztertutako dimentsioak eta horiek aztertzeko ezinbestekoak izan diren txantiloia zein landa lana txertatu ditut eranskinetan.

## 2. Marko teoriko eta kontzeptuala

Emakumeek eskubide berdinak dituzten norbanako libretzat hartuak izatea lortu duten aldetik, azken bi mendeak bereziki interesgarriak izan dira hauentzat. Hala ere, gizonei mesede egin dien mendekotasun, sumisio eta ikusezintasunez beteriko istorio luzea izateaz gain, oraindik ere ez dute berdintasuna bere osotasunean gozatzen (Simón Rodríguez, 2009). Azken hamarkadetan egindako ikerketa desberdinek (antropologikoak, soziologikoak, filosofikoak...), esaterako, androzentrismo kulturalak, hots, gizona gauza guztien erdigune gisa kokatzen duen eta emakumeen eta haien munduaren ikusezintasuna dakarren munduaren ikuspegiak (Puleo, 1995), arlo guztietan emakumeen diskriminazioa eraiki duela eta eraikitzen jarraitzen duela argi utzi dute, genero desberdintasuna dagoela agerian utziz (Fernández Palomares, 2003).

Baina zer da generoa? Generoa gizarteak gizon edo emakumeei egotzen dizkien eta jarduteko modu jakin batzuk suposatzen duten portaera-ereduen multzoa da. Eraikuntza sozial orok bezala, generoek ñabarduraz betetako kontzeptu konplexuak izendatzen dituzte, eta hauek botere harremanen menpe daude. Generoak identitate- eta portaera-sistemak diren heinean, gizabanakoek beren sexuaren arabera egin behar dutena auresaten dute. Modu horretan, gizon zein emakumeek dituzten giza garapenerako aukeretan muga handiak ezartzen dituzte beren gaitasun eta nahiekin beti bat ez datozen ereduera egokitzea behartuz. Hala ere, genero maskulinoa beti jo izan da femeninoa baino goragokotzat, eta ondorioz historian zehar emakumeak zapalduak izan dira (Subirats Martori eta Tomé González, 2007).

Aurrekoa kontuan hartuz, egungo sistemaren egitura guztiz patriarkala dela agerian geratzen da. Honek esan nahi du gizartea antolatzeke sistema batean bizi garela, non boterearen funtsezko postuak (politikoa, ekonomikoa, erlijiosoa eta militarra) eskusiboki edo gehienbat gizonen esku dauden. Horrela bada, karakterizazio hori kontuan hartuta gizarte ezagun guztiak, iraganekoak eta oraingoak, patriarkalak direla esan daiteke, patriarkatua gaur egunera arte iristen den antzinatasun handiko erakunde historikoa baita (Puleo, 2005). Gauzak horrela, ukuezina da egitura patriarkal horretan genero maskulinoa genero femeninoaren gainetik dagoela, eta hortaz genero desberdintasuna existitzen den errealitate bat dela. Ondorioz, Lomasek aipatu bezala,

“se establece una jerarquía entre los individuos, jerarquía que supone un muy diverso acceso a los recursos y al poder. En este aspecto el sistema genérico es desfavorable para las mujeres mientras beneficia a los hombres” (Lomas, 1999: 23), hau da, egitura honetan, emakumeek ez bezala, gizonezkoek haiantzat onuragarriak diren zenbait pribilegio dauzkate. Hala, emakume eta gizonen arteko desberdintasuna bizitzako alor guztietan nabarmena da, izan ere, generoa sozialki transmititzen da hezkuntza sistema edota eskola bezalako instituzioen bitartez (Lomas, 1999).

Azken horri helduta, hezkuntza sistemarekin lotuta dauden desberdintasun iturrien artean (klase eta etnia hausketa egoteaz gain) genero hausketa dagoela esan behar da, sistema patriarkalarekin erlazionatuta dagoena, hain zuzen. Sistema patriarkalean gizonek arlo politiko, ekonomiko eta domestikoan menderatze, dominazio edo nagusitasun papera daukaten bitartean, emakumeek paper menderatua betetzen dute, eta horrek desberdintasuna sortzen eta elikatzen jarraitzen du. Baina egon diren desberdintasun sozialen aurrean hezkuntza sistemak ez du modu neutralean jokatu, eta ondorioz, norbanakoaren arrakasta akademikoa bere jatorrizko taldearen arabera izan da. Kasu honetan genero desberdintasunean oinarrituz, gizon edo emakume izateak etorkizun akademikoa baldintzatu du, lehenengoei bidea erraztuz (Fernández Palomares, 2003).

Gaur egun, hezkuntza munduan ardura daukaten irakasle edota bestelako pertsona asko berdintasunaren alde dauden arren, hezkuntzak generoen arteko desberdintasun eta interesak indartzen jarraitzen du berdintasunaren ikaspen eta irakaspenean emandako pausuak moteldu zein ahulduz eta sexismoa transmititzen jarraituz (Simón Rodríguez, 2010). Eskolak sexismoa transmititzeko bi modu ditu: curriculum formala eta ezkutuko curriculum.

Curriculum formala ikastetxeak publikoki eskaintzen duena da, eta irakatsi behar diren ezagutza zientifiko eta kultural guztiak biltzen dituela suposatzen da. Aise esanda, curriculum formala irakasgai espezifikoaren eta hauen helburuen bitartez aurrera eramaten dena da, hots, fisikoki erregistratuta dagoena eta ikasleek hezkuntza sisteman dauden bitartean ikasi behar dutena (Estepan Valencia, 2015). Hau esanda, curriculum formal edo inplizituan, testuliburuak eta eskoletan erabilitako bestelako material

akademikoak leudeke, adibidez, fitxak. Honen harira, berdintasun-idealak izenpetzen badira ere, eskolak estereotipo sexistak erabiltzen eta emakumeen aurkako diskriminazioak egiten jarraitzen du. Hori eskola-bizitzaren alderdi askotan agerikoa da, hala nola, testuliburuetan. Sexismoak eskolan duen presentziak agerian uzten du eskolan dauden aurreiritziak islatu baino ez dituela egiten, izan ere, haurrak inguratzen dituen garai eta gizarteko balioak zein gizarte-arauak irakasteko joera du. Hala, testuliburuak ez dira gizartean oraindik ere existitzen diren eskema diskriminatzaileen salbuespenak (Emakunde, 1990).

Aipatutakoa kontuan izanda, 1990ean Emakundek euskarazko testuen inguruko ikerketa egin zuen, sexuari dagokionez (femeninoa, maskulinoa edo zehaztugabea) honako alderdi hauetan zentratuz: presentzia, protagonismoa, non agertzen diren (lekua, espazioa), aisialdia eta jolas-jarduerak, lana, lan domestikoa (etxeko-lana) eta ahaidetasun harremanak. Presentziari dagokionez, pertsonaia maskulinoek femeninoek baino ia hiru aldiz presentzia handiagoa daukate. Protagonismoaz hitz egiten bada, protagonisten %60,4a maskulinoak diren bitartean, femeninoak soilik %25,8a dira. Espazioari dagokionez, pertsonaia maskulinoek femeninoek baino lan egiteko edo gozatzeko espazio gehiago izateaz gain, lehenengoen espazioak ireki, zabal eta sozialagoak dira, eta bigarrenenak, berriz, txikiagoak, itxiagoak eta familiarekin erlazionatuagoak (Emakunde, 1990).

Jolas-jardueretan gehien irudikatzen den pertsonaia, beste behin ere, maskulinoa da. Soilik pertsonaia femeninoek egiten dituzten jarduerak urriak dira, ez dira oso dinamikoak eta ekimen eskasa dute, baina soilik pertsonaia maskulinoek egiten dituztenak askotarikoak dira, eta hauetan haien dinamismoa eta sormena nabarmentzen da. Bestalde, lanaz hitz egiten bada, atal honetan diskriminaziorik handiena jasotzen da: gizonezkoak lanbide ezberdinak ditu, kategoria guztiak barne hartuz, eta emakumeei lan jarduera mugatuagoa eskaintzen zaie, bai lanbideari, baita lanbide motari dagokionez ere. Gainera, eskaintzen dituzten pizgarri ekonomiko eta sozialak direla eta, liburuetan agertzen diren emakumezkoen lanbide ereduak ez dira oso erakargarriak (Emakunde, 1990).



Etxeko-lanei buruz ere bada zeresanik: emakumeek funtsezko zereginak (erosketak egin, sukaldatu, garbitu, haurrak zaindu...) egiten dituzte eta gizonek eta mutilek, ordea, "laguntza" lanak edo lan osagarriak (landareak ureztatu, platerak lehortu, mahaia jarri...). Azkenik, ahaidetasun harremanak daude. Testuliburuetan agertzen diren familiak, oro har, nuklearrak dira eta amak paper maitakorra betetzen du. Gainera, emakumeak haien seme-alaben aholkulari eta laguntzaile bezala irudikatuak azaltzen dira (Emakunde, 1990). Ikerketa horretatik ateratzen den ondorio nagusia hurrengoa da: bi sexuei ematen zaien tratamendua desberdina izateaz gain, emakumea beti gutxiesten da.

Baina arestian esan bezala, sexismoa ez da soilik curriculum formalaren bitartez transmititzen, eskolak ezkutuko curriculumaren bitartez ere sexismoa transmititzen baitu. Ezkutuko curriculumak inplizituki transmititzen dena da. Ez da idatzia agertzen, baina eragin handia du bai ikasgelan eta baita hezkuntza erakundean bertan ere. Curriculum ofiziala edo curriculum formala ez bezala, ezkutuko curriculumak ez da hezkuntza sistema batean nagusitzen diren arauen bitartez sortu, izan ere, Murillo Estepak dioenez "es el resultado de ciertas prácticas institucionales que, sin figurar en reglamento alguno, pueden acabar siendo las más efectivas en la adquisición de conocimientos, comportamientos, actitudes y valores" (Murillo Estepa, 2012: 1), hots, nahiz eta hezkuntza-helburu gisa ez azaldu, ezkutuko curriculumak ikasgelan eta eskolan egunero gertatzen diren interakzioetatik sortzen da (Carrillo Siles, 2009). Ezkutuko curriculumak idatzita ez egoteak ezarritako harreman sozialen eta jarreraren bitartez ikastea ahalbidetzen du, eta ez eduki jakin batzuen transmisioan esan edo adierazitakoaren bitartez, hau da, egiten edo ikusten denagatik esaten denagatik baino gehiago ikasten da (Murillo Estepa, 2012). Honen barne hezitzaileen jarrera eta jokabidea, espazioaren antolaketa eta erabilera, mintzaiaren erabilera, lanbide-orientazioa, apaingarriak eta koloreak, irudiak, abestiak, balioak, diziplina, tratua, etab. leudeke (Reizabal, 2017).

Arestian esan bezala, egitura patriarkal batean bizi gara, eta patriarkatua zenbait egitura edo azpisistema desberdinez osatuta dago, hala nola, familia, eskola, erlijioa edota gizarte-komunikabideak, non sozializazioa emateaz gain, hierarkia eta menderatze patriarkala "naturalizatzen" diren. Hala, azpisistema horiek helburu jakin

bat lortzeko elkarri eragiten diote, pentsamendu hegemonikoa edo androzentrismo deiturikoa inposatuz, emakumeen, haurren eta beheragoko mailakotzat jotzen diren pertsonen bizitzako espazio guztiak kutsatzeko, hain zuzen (Radios Libres, 2014). Gauzak horrela izanda ere, azpisistema patriarkal guztien artean eskola diskriminazioa gutxien bultzatzen duena da. Simón Rodríguezek dioenez, “puesto que la escuela es un ámbito donde la idea de igualdad ha hecho bastante recorrido y fortuna, ahí tiene posibilidades, en primer lugar de prosperar también la idea de equivalencia y cooperación entre los sexos” (Simón Rodríguez, 2010: 129). Alegia, eskolak berdintasunerako bidean asko lagun dezake, baina horretarako, honek berdintasuna ikasi, irakatsi eta praktikatzeari gain, fokoa generoan jartzen duen hezkuntza ez sexista bermatu behar du orain arte oso inplementazio ahula izan duen hezkuntzaren beharra aitortuz, hezkidetzarena hain zuzen (Simón Rodríguez, 2010).

Hezkidetzak zer den azaltzeko modu ugari daude. Reizabal Arruabarrenak horrela definitzen du: “Haien sexu biologikoa, sexu-identitatea, sexu-joera eta genero-adierazpena edozein izanda ere, pertsonen eskubide, aukera, tratua, betebeharrak, itxaropenak eta beste parekideak izatea helburu duen prozesu hezitzailea” (Reizabal Arruabarrena, 2019:6). Bestalde, “tratua eta orientabide intelektual, moral eta profesionalean genero-diskriminazio negatiboak sahiestuz heztea” ere bada (Taberner Guasp, 2008: 128).

“Por coeducación se entiende la propuesta pedagógica actual para dar respuesta a la reivindicación de la igualdad realizada por la teoría feminista, que propone una reformulación del modelo de transmisión del conocimiento y de las ideas desde una perspectiva de género en los espacios de socialización destinados a la formación y el aprendizaje” (Instituto de la mujer, 2008: 17).

Fernándezek (2018) hezkidetzak generoen eraikuntza zalantzan jarriz feminismoak hezkuntzari egindako ekarpena dela dio, matxismoa, sexismoa, etab. baztertzuz, emakume eta gizonen eskubide, aukera, betebeharrak, lan... berdinak izan ditzaten lortzea helburu duena. Aipatutakoa kontuan hartuz, laburki genero arrazoiengatik diskriminazio edota desberdintasunik ez egotea bermatzen duen hezkuntza mota dela esan daiteke, hots, hezkidetzak genero berdintasunean oinarritzen den hezkuntza eredua dela.

Hezkidetzak, hortaz, ez du neskak balore maskulinoak dituen sistema batera egokitzea nahi, ezta neskak eta mutilak berdinak balira bezala heztearen ere, batzuen eta besteen artean dauden desberdintasunak integratu, baloratu eta aniztasuna errespetatzea baizik. Halaber, hezkuntza mota hau estereotipo sexistak zuzendu, ez sexista den curriculum orekatua proposatu eta generotik haratago doazen gaitasun indibidualen garapena lortzean jartzen du fokua (Cabeza Leiva, 2010). Beste era batera esanda, hezkidetzaren helburua, hain zuzen, generorik gabeko hezkuntza sortzea da. Horregatik guztiatik, berdintasunerako bidean jarraitu eta hezkuntza eredu justuagoa eraikitzeko haurrak ikuspegi hezkidetzaille batetik heztearen premia da.

### 3. Helburuak eta metodologia

Lan honetan genero berdintasunean heztearen garrantzi eta beharra azpimarratzea nahiko genuke, alegia, hezkidetzaren beharra aitortzea eta honek dakartzan onurak plazaratzea. Ondorioz, modulu lan honen helburua hurrengo da: ikasgelan gertatzen diren genero-desberdintasunak ezagutzea eta ulertzea, zehazki, Lehen Hezkuntzan gertatzen direnak. Helburu nagusi eta zabal hau betetzeko, hurrengo lerroetan azaltzen diren azpi helburuak finkatu dira:

- Gizartean dauden genero desberdintasunak eskolan islatzen direla azaleratzea.
- Ikasle zein irakasleek gizarteak inposatutako genero estereotipo eta jarrera jakin batzuk erreproduzitzen dituztela erakustea.
- Lehen Hezkuntzako gelatan erabiltzen diren material eta eduki asko sexistak direla ikusaraztea.

Helburu eta azpi helburu hauek lortzeko erabili den metodologia behaketa sistematikoa izan da, hain zuzen. Peña Acuña (2015) behaketa sistematikoa ikertzaileak bere zentzumenen bidez interes sozialeko gaiak edo gertaerak berez diren edo gertatzen diren moduan ikuskatu eta aztertzeko erabiltzen den metodoa bezala definitzen du. Behaketa parte-hartzailea<sup>1</sup> urte askotan zehar ikerketa antropologiko eta soziologikoetan garrantzi handia izan duen metodologia izan da. Halaber, azken urteetan azterlan kualitatiboen inguruko informazioa biltzeko oso metodo erabilia izan da hezkuntza arloan (Kawulich, 2005).

Esan bezala, behaketak behatzaileari bost zentzumenak erabiliz existitzen diren egoerak deskribatzeko ahalmena ematen dio, aztertzen ari den egoeraren "argazki idatzia" emanez. Horrela, bada, ikertzailearen behaketa eta parte-hartzeari esker, metodologia honek ikertuak izaten ari diren pertsonen haien egoera naturalean egiten dituzten jardueren inguruan ikasteko eta horiek aztertzeko aukera ematen dio ikertzaileari (Kawulich, 2005).

---

<sup>1</sup> Horrela deitzen da gizarte zientzietan (Peña Acuña, 2015).

Kawulichek (2005) behaketa-metodoen erabilgarritasunean sinesten du, izan ere, hitzezkoak ez diren sentimendu-adierazpenak berrikusteko metodoak ematen dituzte, partaideak euren artean nola komunikatzen diren ulertzeko lagungarriak dira eta jarduera jakin batzuk aurrera eramateko zenbat denbora erabiltzen den ikusteko aukera ematen dute. Era berean, ikertzaileari ikertzen dituen pertsonak dituzten zenbait jarrera detektatu eta aztertzeo aukera ematen dio, eta beraz, testuingurua eta aztertzen ari den fenomenoak hobeto ulertzen lagun diezaiolke.

Gainera, behaketa parte-hartzailea antropologoen landa lana egiteko gehien erabiltzen duten metodoa da (Kawulich, 2005). Hala, egindako behaketa Altsasun kokatzen den Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloko 2. mailako talde batean egin da 2019ko azaroaren 4tik 2020ko urtarrilaren 24ra bitartean informazioa jasotzeko, ordenatzeko eta erregistratzeko erabilitako txantiloak (ikus [b eranskina](#)) eta landa lanaren (ikus [c eranskina](#)) bitartez. Txantiloak eta landa lan horietan, bada, aurretik zehaztutako helburuei erantzuteko ondorengo hiru dimentsioak (ikus [a eranskina](#)) aztertu dira: ikasleak, irakasleak eta materialak eta edukiak.

Ikasleei dagokienez, landa lanean zenbait puntu jaso dira, taldeko nesken jarrera, mutilena eta neska eta mutilen arteko harremanak, zehazki. Irakasleen inguruan, esaterako, gizarteak inposatzen dituen jarrera eta ideiak zenbateraino erreproduzitzen dituzten eta neska eta mutilekin dituzten harremanen desberdintasunak zeintzuk diren hartu da. Azkenik, gelan erabiltzen diren eta sexismoa eta genero estereotipoak transmititzen dituzten materialak eta edukiak zeintzuk diren jaso da.

Arestian aipatutako xedeak lortu eta lana aurrera eraman ahal izateko landa lanaren bitartez sortutako lehen eskuko informazioaz gain, iturri bibliografiko eta estatistikoaren analisia egin da txosten, liburu eta artikuluen desberdinez baliatuz. Gainera, generoaren argazki eguneratu eta konplexua erakutsi nahi izan da, eta horretarako, marko teorikoan ikus daitezkeen bezala, iturri zahar zein berriak erabiltzerakoan oreka kronologikoa mantendu da.

## 4. Testuingurua

Altsasu Nafarroako mendebaldeko udalerrria da. Gainera, Sakana izeneko haranean kokatzen den eta Euskal Herriaren erdian dagoen Burunda bailarako hiriburua da ere. XX. mendean, batez ere 50eko hamarkadan, Altsasuk garapen industrial handia izan zuen, eta horrek espaniar estatuko hainbat tokitatik etorritako pertsonen immigrazio prozesu ikaragarria ekarri zuen. Hala, industrializazioak bereziki Extremadurako jendea erakarri zuen. Ondorioz, Altsasuko biztanleriak gorakada handia izan zuen, 1850ean 1.000 biztanle izatetik, 1981ean 7.250 izatera iritsiz (Altsasuko Udala, 2008).

Gaur egun, Altsasu 7.443 biztanlez osatutako herria da. Hortaz, Iruñea eta Gasteiz artean dauden gainontzeko herriein alderatuz, nahiko dentsitate handikoa dela esan daiteke. Esan bezala, industrializazioaren ondorioz herriak immigrazio prozesu handia jasan zuen (Altsasuko Udala, 2008). Gauzak horrela, [1. taulan](#) ikus daitekeen bezala, gaur egungo biztanleen artean 563 pertsona atzerritar daude: 288 gizon eta 275 emakume zehatz-mehatz. Alegia, biztanleriaren %7,56a atzerritarra da (INE, 2019).

### 1. Taula

*Altsasuko biztanleak (2019. urtea), nazionalitate eta sexuaren arabera.*

	Bertakoak	Atzerritarrak	Guztira
Gizonak	3.473	288	3.761
Emakumeak	3.407	275	3.682
Guztira	6.880	563	7.443

Iturria: Instituto Nacional de Estadística (INE), (2019).

Biztanle guztiak kontuan hartuz, 3.761 gizon eta 3.682 emakume daude, hau da, gizonezkoek biztanleriaren %50,53a hartzen dute emakumeak %49,47a diren bitartean. Hala, generoari dagokionez herri honek oso biztanleria orekatua daukala esan daiteke. Azken horri lotuta, Altsasuko udalak emakumeen bilgunearen eskutik emakumeentzako aholkularitza juridikoa eta berdintasuneko zerbitzua eskaintzen ditu, baita berdintasunerako bidean aurrera egiteko zenbait programa eta proiektu burutu

ere. Hala nola, administrazioan genero zeharkakotasuna lantzen da, udal politika guztietan aukera-berdintasunaren printzipioa integratzen da, beste sail, erakunde eta instituzioei genero-ikuspuntua jarduketa-programa guztietan sartzea aholkatzen zaie, genero-desberdintasunak murrizteko berariazko jarduerak antolatu eta garatzen dira... (Altsasuko Udala, 2016a).

Bestalde, herritarren maila ekonomikoari erreparatuz (ikus [2. taula](#)), 2018an Nafarroako familien urteko batez besteko errenta garbia 34.225 eurokoa izan zela (NASTAT, 2020a) eta Altsasuko familien urteko batez besteko errenta garbia etxe bakoitzeko, ordea, 32.373 eurokoa izan zela (NASTAT, 2019) kontuan hartuz, Altsasuko familien errenta garbiaren batez bestekoa Nafarroako familienaren azpitik dagoela ondoriozta daiteke. Pertsona bakoitzeko batez besteko errenta garbiari dagokionez, berriz, Nafarroa mailan 12.917 eurokoa izan zen (NASTAT, 2020a) Altsasun 13.059 eurokoa izan zen bitartean (NASTAT, 2019). Oraingoan horrenbestez, Altsasu Nafarroako batez bestekoaren gaintik dago.

Aurrekoarekin jarraituz, Nafarroa zein Altsasu mailan emakumezkoen batez besteko errenta garbia gizonezkoena baino baxuagoa da. Hala, gizonezkoek Nafarroan duten batez besteko errenta garbia erreferentziatzat hartuz, emakumezkoen errenta batez beste eurena baino %4,87 baxuagoa da (NASTAT, 2020a), eta Altsasuko kasuan are gehiago %7,9 baxuagoa izanik (NASTAT, 2019). Beraz, argi geratzen da generoen arteko soldata-arrakala dagoela, alegia, gizonek eta emakumeek jasotzen dituzten ordainsarien artean aldeak daudela eta soldata-desberdintasun hori emakumeen eta gizonen arteko enplegu-diferentziaren ondorio dela (Emakunde, 2018).

## 2. Taula

*Urteko batez besteko errenta garbia (2018. urtea) pertsona eta etxe bakoitzeko.*

	Errenta garbia pertsona bakoitzeko (Nafarroa)	Errenta garbia etxe bakoitzeko (Nafarroa)	Errenta garbia pertsona bakoitzeko (Altsasu)	Errenta garbia etxe bakoitzeko (Altsasu)
<b>Gizonak</b>	13242	-	13589	-
<b>Emakumeak</b>	12597	-	12516	-

<b>Guztira</b>	12917	34225	13059	32373
----------------	-------	-------	-------	-------

Iturria: NASTAT, (2019 eta 2020a).

Arestian esan bezala, Altsasu Hego Euskal Herrian kokatzen den herria da, eta Nafarroako eremu euskaldunean kokatzen den heinean, biztanle askok euskara dakite. [3. taula](#)n ikus daitekeen bezala, 15 urte edo gehiago dituzten 6206 biztanleak kontuan hartuz 3485ek, hau da, %56,15ak euskara ulertzen du, 2760k (%44,47) euskaraz hitz egiten dute, 2622 pertsona (%42,25) euskaraz irakurtzeko gai dira eta 2450ek (%39,48), aldiz, euskaraz idazten dute. Generoari erreparatuz eta 15 urte edo gehiagoko biztanleen gehiengoa (%54,75) gizonezkoa dela kontuan hartuz, euskara mailari dagokionez ez dago desberdintasun handirik, datuak oso parekatuta baitaude (NASTAT, 2020b).

### 3. Taula

*15 urte edo gehiago dituzten Altsasuko biztanleak euskara mailaren arabera (2018. urtea).*

	<b>15 urte edo gehiagoko biztanleak</b>	<b>Ulertzen dute</b>	<b>Hitz egiten dute</b>	<b>Irakurtzen dute</b>	<b>Idazten dute</b>
<b>Gizonak</b>	3.398	2.000	1.649	1.589	1.506
<b>Emakumeak</b>	2.808	1.485	1.111	1.033	944
<b>Guztira</b>	6.206	3.485	2.760	2.622	2.450

Iturria: NASTAT, (2020b).

Herrian Txioka Haur Ikastola, Lanbide Heziketako institutua, Iñigo Aritza Ikastola, Altsasuko Korazonistak eta Zelandi Ikastetxe Publikoa edo Zelandi Herri-Eskola kokatzen dira herritarrei A, B edo D ereduetan ikasteko aukera luzatuz (Altsasuko Udala, 2016b). Zelandi Herri-Eskola duela 42 urte sortu zen eta Altsasuko eskola publiko euskaldun, eleanitz eta inklusiboa da, Haur eta Lehen Hezkuntzako A eta D ereduak eskaintzen dituena. 425 ikasle daude matrikulatuta, eta %64,24a immigranteak dira. Eskola publikoa den heinean, ikasleen jatorri-sozio-ekonomikoa



anitza da, baina oro har, ikasleek eta euren familiek maila sozio-ekonomiko ertaina daukate. (Zelandi I.P, 2020).

Komunikazioaz hitz egiten bada, euskara edo gazteliana ulertzen ez duten ikasleen familiak badaude, eta horiekin komunikatzeko, ingeleseko irakaslearen edota itzultzaile baten laguntza behar izaten dute. Hizkuntza hauek ulertzen ez dituzten umeek, berriz, euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiten ikasteko HIPI-aren laguntza daukate, baina laguntza hori ikasgelatik kanpo jasotzen dute. Hau esanda, ahal den neurrian ikasle eta irakasleen arteko komunikazioa euskaraz gauzatzen da, eta irakasleek euren artean ere euskaraz hitz egin ohi dute. Hala ere, badira euskara ez dakiten irakasle batzuk ere. Bestalde, ikasgelan ikasleek euskaraz hitz egiteko ohitura duten arren, patioan gaztelania da nagusi (Zelandi I.P, 2020).

Generoaz ere bada zeresanik, izan ere, 47 irakasle daude, eta horietako 4 baino ez dira gizonak, hau da, irakasleen %91,49a emakumezkoak dira. Hori dela eta, generoari dagokionez nahiko lanketa handia egiten dutela esan daiteke. Esaterako, 2004-2005 ikasturteaz geroztik, Zelandi Herri-Eskolak Altsasuko Udalak Emakume eta Berdintasun Batzordearen bitartez bultzatu eta finantzen duen hezkidetzaprograma garatzen du Lehen Hezkuntzako 2., 4. eta 6. mailatan. Hala, hezkidetzaprogramaren helburua aukera-berdintasunetik, estereotipo eta orientazio sexistak ezabatuz, gizartearen garapen eta ongizatearen bidean aurrerapausoak emateko neska-mutilek beren nortasun eta identitate maskulino edo femeninoa garatzea da. Gainera, 2018-2019 ikasturtean eskolako talde guztietan SKOLAE Hezkidetzaprograma lantzen hasi ziren Haur Hezkuntzako 3 urteko geletatik Lehen Hezkuntzako 6. mailara bitarte (Zelandi I.P, 2020).

SKOLAE programak ikasle guztiei berdintasunean bizitzeko aukera erraztea du helburu. Hala, Nafarroako ikastetxe eta hezkuntza-komunitateentzako 2017-2021 hezkidetzaprograma zehazten du eta hainbat kontzepturen inguruan egituratzen da: emakumeen eta nesken aurkako indarkerien prebentzioa, emakumeen eta haien ekarpenen ikusgarritasuna, identitateekiko, kulturekiko, sexualitateekiko eta horien aniztasunarekiko errespetua, parte-hartze soziala eta berdintasunez jokatu eta hura lortzeko konpromezua. Horrez gain, hezkidetzaprogramaren ibilbidea, ekintzaprograma,

prestakuntza-plan zabala eta ikasgeletatik harago, familietara eta adin guztietako ikasleen ingurune hurbilera iristeko tokiko eragileen aniztasuna koordinatzeko konpromezua biltzen ditu (Nafarroako Gobernua, 2017).

Gauzak horrela, kasu honetan hiru hilabeteetan zehar egindako behaketaren bitartez aztergai izan den taldea 9 mutil (%56,25) eta 7 neskaz (%43,75) osatutako Zelandi Herri Eskolako Lehen Hezkuntzako 2. mailako taldea izan da, euren tutorea eta soinketako irakaslea mutilak (%50) eta ingeleseko eta musikako irakasleak neskak (%50) izanik.

## 5. Emaitzak

Atal honekin hasi aurretik landa lana irakurtzea eta hau ondoan izatea komeni da, etengabe bertan idatzitakoa komentatuko baita (ikus [c\\_eranskina](#)). Hau esanda, hurrengo puntuetan Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloko 2. mailako talde batean 2019ko azaroaren 4tik 2020ko urtarrilaren 24ra bitartean egindako behaketa sistematikoaren bitartez ikasle, irakasle eta material zein edukiei buruz behatutakoa iruzkindu da. Horretarako, informazioa jaso, ordenatu eta erregistratzeko erabilitako landa lana arretaz aztertu da, hau da, behaketa egin den egunetan zehar jasotako informaziorik esanguratsuenak komentatu da gizartean dauden genero desberdintasunak eskolan islatzen direla, ikasle zein irakasleek gizarteak inposatutako genero estereotipo eta jarrera jakin batzuk erreproduzitzen dituztela eta Lehen Hezkuntzako gelatan erabiltzen diren material eta eduki asko sexistak direla islatuz.

### 5.1. Ikasleak

Behaketa burutu den hilabeteetan zehar Subirats Martori eta Tomé Gonzálezek (2007) dioten bezala, jaiotzen direnetik, hurrek inguruan dituzten pertsona helduen (benetakoak zein birtualak) portaerak ez ezik, beste haur batzuenak, prozesu interaktiboetan ematen zaizkien erantzunak, etab. behatzen dituztela argi ikusi da. Izan ere, gizarteak inposatutako genero estereotipo eta jarrera ugari erreproduzituak izan dira. Hala, neskengandik eta mutilengandik behatutako jarrerak oso desberdinak izan dira.

Egungo gizartean, genero maskulinoak "irabazlearen espiritua" onartu eta aldi berean, emotibitatearen eta sentimenduen zati bati uko egiten ikasi behar du maskulinitasuna adierazteko baldintza gisa. Subirats Martori eta Tomé Gonzálezek (2007) horren ondorioz genero horren oso ezaugarri esanguratsua sortzen dela diote: indarkeriazko jarreraren garapena, hain zuzen. Mutilen jarreraren inguruan behatutakoari esker aipatutakoa guztiz betetzen dela ikus daiteke, izan ere, adibidez lehenengo egunetik, hots, azaroaren 4tik, mutilek euren maskulinitasuna adierazi nahi izan zuten "bola atera" eta zein indartsuak ziren erakutsiz edota indarkeriazko jarrerak izanez, hala nola, azaroaren 6ko Gorputz Hezkuntzako saioan elkarri jo eta bultzatuz.

Baina indarkeriazko jarrerak hain normalizatuta dauden honetan, eguneroko bizitzan eta kasu gehienetan, mutilek ez dituzte elkarri ematen dizkioten kolpeak, borrokak, erasoak edo isekak etsaitasun-adierazpen eta kalte egiteko gogo gisa hauteman ohi, baizik eta nolabait euren burua eta taldekoak ezagutu eta neurtzea ahalbidetzen dieten jolas eta enfrentamendu gisa (Subirats Martori eta Tomé González, 2007). Hala ikus daiteke landa lanean, azaroaren 14an mutilek elkarri jotzea eta ostikoak ematea jolastzat hartzen dutela adierazi baitzuten. Gainera, aipatu gisa, mutilek euren maskulinitasuna adierazteko sentimenduak nolabait baztertzen dituztenez, behaketa egin den denbora tartean zehar hauek sentipenak kudeatzeko arazoak izan ohi dituztela baieztatu da, baita horren ondorioz biolentzia erabiltzen dutela ere. Hala ikusi zen, esaterako, azaroaren 7an klasera iritsi eta norbaitek haiek egindako eskulanak margotu zituela ikusi zutenean mutilek izandako erreakzio eta egindako komentarioetan, azaroaren 11n talde bateko mutil bat haserretu eta eskuetan zuen arkatza apurtu zuenean, abenduaren 4an ikasleek istorio bat idatzi behar zutenean eta taldeko mutil batek pertsonak eta animaliak hiltzea baino proposatzen ez zuenean, edota abenduaren 19an ikasle batek fitxa bateko irudiak odolez beteta egongo balira bezala koloreztatu zuenean. Hori guztia feminitate tradizionalaren baloreak aitortu gabe maskulinitasun tradizionalarenak nabarmentzen dituen gizartearen ondorio dela esan daiteke, hots, gizabanakoek hurbiltasuna, empatia eta ulermena erakustea sustatu ordez, hauek lehiakortasuna, zakakeria eta menderatzeko borondatea adieraztera behartzen dituen gizartearen ondorio (Subirats Martori eta Tomé González, 2007).

Ostera, esan bezala, neskek egoera berdinen aurrean oso jarrera desberdinak dituztela ikusi da, mutilek ez bezala sentimenduak azaleratzeko joera handia erakutsi baitute. Hala nola, azaroaren 6ko Gorputz Hezkuntzako saioan mutilek elkarri jotzen zioten bitartean, neska gehienek haien haserrea adierazteko oihukatu egiten zuten, batek negar egiten zuen... Bestalde, beste egoera batzuetan haserretzen zirenean mutilek egiten zuten bezala indarkeriaz jokatu ordez, triste jarri eta negar egiteari ekiten zioten, azaroaren 7an kasu. Halaber, Euskal Herriko Bilgune Feministak (2011) dioten bezala, 3 hilabete hauetan zehar neskek beste neskekiko lehiakortasuna izateko heziak direla baieztatu da. Azaroaren 21ean kasu, egindako behaketaren bitartez bi neska etengabe euren artean haserretzen zirela ikusi baitzen. 2N eta 16N ikasleek

abenduaren 3an egindako marrazkiak ere ezin dira aipatzeke geratu, izan ere, printzipe batek printzesa salbatzen zuen istorioa errepresentatu zuten, Barreiros Pinto eta Bastidas Villacréssek (2015) adierazi bezala printzesen ipuin eta istorioek haurtzaroko feminitatearen eraikuntzan eta orokorrean nesken jarrerengan eragin handia dutela agerian utziz.

Behatuak izan diren mutilek eta neskek erabiltzen dituzten jostailuak ere guztiz desberdinak direla ikusi da. Adibidez, azaroaren 15ean neskek errealtatea islatzen ez zuten jostailu arrosekin jolasten zuten bitartean, mutilek erabiltzen zituzten jostailuak askoz ere erreagoak ziren, eta hauek kolore ilunagoak zituzten. Abenduaren 2an ere desberdintasun hori erraz antzeman zen, izan ere, neska batek jolasteko paperezko estutxe bat egin zuen, eta mutil batek, ordea, paperezko labana bat. Hala bada, beste behin ere jostailuek estereotipoz betetako errealtatearen interpretazioa mantendu eta generoagatiko diskriminazioa sustatzen dutela argi geratu da, baita komunikabideen zuzeneko eta zeharkako publizitateak haurtzaroan duen eraginaren ondorioz jostailuen onarpenean eragin sexista dagoela ere. Beste era batera esanda, jostailuak sexuaren arabera esleitzeak neskei eta mutilei egozten zaizkien rol eta portaera desberdinak sortzen lagundu eta genero-estereotipoak indartzen dituela (Álvarez López, 2017).

Genero-estereotipoekin jarraituz, edertasun eredu estereotipatua aipatu behar da, oraindik ere pil-pilean dagoen gaia da eta. Hala, Euskal Herriko Bilgune Feministak (2011) egungo edertasun ereduak batez ere emakumeei izugarrizko kaltea egiten diela baieztatzen du, gizentasuna erabat baztertu ez ezik argaltasuna idealizatzen baitu ere emakume eta neska askoren autoestimurako oztopo handi bihurtuz. Berriz ere, hau teoria hutsa ez dela esan daiteke, eguneroko bizitzan eta ikasgelatan hau antzematea ez baita arraroa. Azaroaren 5ean, adibidez, taldeko bi ikaslek (neskak) euren itsura gustuko ez zutela aitortu zuten, eta azaroaren 29an, ordea, neska batek beste baten inbidia zuela konfesatu zuen bigarren hori argal zegoenez printzesa baten antza zuelako. Azken honek gorago nesken arteko lehiakortasunaren inguruan esandakoarekin harreman estua izateaz gain, argi uzten du El Heraldoko erreakzioak (2016) adierazi bezala neskek printzesen ipuinetan ikusten dutena euren autoestimuan

eragin negatiboa duela haiengan estereotipoak sortu eta printzesak bezalakoak izan nahi dutelako.

Neska-mutilen arteko harremanei dagokienez behatutakoari buruz ere bada zeresanik. Gorago adierazi gisa, gizarteak ezarritako estereotipoei men eginez emakumekoei dependentzia, maitasuna eta estetikarako zaletasunaz gain beste neskekiko lehiakortasuna eta intuizioa egozten zaizkien bitartean, gizonekoei nagusitasuna, akzioa, lehia eta kontrola izatea exigitzen zaie. Hala, emakumeak ahul eta menpeko izateko heziak diren bitartean, gizonak egoeren nagusitasuna eta kontrola izateko hezten dira. Horrenbestez, txiki-txikitatik neskek mutilei egoerak guztiz kontrolatzeko ardura uzten diete haiek horretarako gaitasunik izango ez balute bezala (Euskal Herriko Bilgune Feminista, 2011). Horren eredu argia azaroaren 7an gertatutakoa da, izan ere, klaseko neska batek mutil bati beste neska bat isilaraztea eskatu zion, mutilak hori egiteko autoritatea izango balu bezala. Gainera, euren arteko harremanekin jarraituz, argi ikusi zen azaroaren 18an edo abenduaren 9an, esaterako, neskek ez bezala mutilek afektibitate eta maitasuna erakusteko ohitura falta dutela (Itatí, 1995), gorputz hezkuntzan egindako jolasetan elkarri besarkatzeko errefusa adierazi baitzuten neskek inolako arazorik erakutsi ez zuten bitartean. Bestalde, kasu askotan ikasleek neska-mutilen artean nahasteko joerarik ez daukatela ikusi da, abenduaren 5ean kasu, musikako saioan neskak alde batetik eta mutilak bestetik eseri baitziren.

Aurreko guztia borobilduz eta behaketa guztia kontuan hartuz, ikasleek gizarteak inposatutako genero estereotipo eta jarrera jakin batzuk erreproduzitzen dituztela esan daiteke: azaroaren 12an egindako ariketan ikasleek jarritakoa Salas García (1997) gizarteak transmititzen dituen genero estereotipoen inguruan egindako bereizketarekin guztiz bat zetorrela ikusi nuen, abenduaren 6an “emakumeek etxean egon behar dutela” entzun behar izan nuen, abenduaren 12an ikasle askok oraindik ere kirol batzuk neskenak edo mutilenak direla uste dutela baieztatu nuen, abenduaren 16an mutil batzuen ahoetatik “mutilak neskak baino hobeagoak” direla entzun nuen, etab. Horrez gain, neska-mutilek oso gauza desberdinak baloratzen dituztela argi geratu da, izan ere, azaroaren 5ean ikusi bezala, neskek euren itxurari berebiziko garrantzia ematen dioten bitartean, mutilek, indarra (azaroak 4) eta futboleko hobetzea (abenduak

10) estimatzen dute gizartean dauden genero desberdintasunak eskolan ere islatzen direla agerian utziz.

## 5.2. Irakasleak

Lehen mailako sozializazioaren zatirik garrantzitsuena imitazioz egiten da, hau da, hurrek inguruan dituzten adineko pertsonen nola jokatzeko duten ikusten dute, eta beren portaerak imitatzen dituzte, oinarrizko gaitasunak bereganatuz. Hezkuntza sozializazio-prozesu bat ere badenez, eta pertsona helduek (kasu honetan irakasleek) beren portaerei buruzko kontzientzia argirik eta kontrolik ez dutenez, gauza bera gertatzen da. Hala, zentzu guztietan hezitzailearen paperak berebiziko garrantzia dauka, horrek ikasleen jarrera baldintzatzen baitu (Subirats Martori eta Tomé González, 2007). Gauzak horrela, behaketa egin den hilabeteetan zehar zenbait ikasleren jarrerak aztertu ez ezik, euren irakasleena ere behatu da.

Tutorearen jarrerari dagokionez, bada zeresanik, izan ere, ikasleekin denbora gehien igarotzen duen irakaslea da, eta hortaz oraindik ere gainontzeko irakasleek baino eragin handiagoa dauka ikasleengan. Hasteko, kontuan hartu behar da haurren tutorea gizon gazte bat zela. Hala, egoera askoren aurrean erantzun egokia izan duela esan behar da, esaterako, azaroaren 5ean irakasleak zertaz arduratzen ziren jakiteko ariketa bat egin zuen, eta horri esker bi irakasleak (neskak) euren itxura gustuko ez zutelako deskubritu ahal izan zuen. Gainera, horren jakinaren gainean egotean, ikasle horien autoestimua hobetzen saiatu zen hauek zituzten ezaugarri positiboak goraiatzeko. Halaber, azaroaren 12an irakasleek barneratuta zituzten estereotipoak zeintzuk ziren ikusteko ariketa bat egin zuen, baina jarduera burutzen zen bitartean zenbait irakasleek egindako komentarioei ez zien inolako erantzunik eman, eta ariketa amaitzean ez zuen gaiaren inguruko lanketarik egin. Horrez gain, askotan mutilen indarkeriazko jarreraren aurrean ez zuen inolako erantzunik ematen, hala nola, azaroaren 7an. Azaroaren 25ean eta abenduaren 18an gertatutakoa ere ezin da aipatzeke geratu, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako eguna izan zen horretan tutoreak ez baitzuen irakasleak horren jakinaren gainean jartzeko ezer berezirik aipatu, eta abenduaren 18an irakasleek jostailu sexisten inguruko kartela ikusi eta galdezka hasi zirenean ere ez zien kasurik egin.

Azaroaren 13an, berriz tutorearen jarrera eredugarria izan zen, izan ere, Erdi Aroaren gaia lantzeko froga egitean, fitxan errege-erreginak jarri ordez “erregeak” jartzen zuen, eta ikasleei hori aldatzeko eskatu zien. Bestalde, azaroaren 26an egindako fitxa baten harira, tutoreak mutilek ile luzea eta neskek ile motza izan dezaketela azaldu zien ikasleei, fitxako irudien izenak nahi bezala jartzeko aukera emanaz. Horri esker, ikasle batek ile motza zuena neska zela eta ile luzea zuena mutila zela jarri zuen. Honi lotuta, abenduaren 12an tutoreak ikasleek kirolek generoa dutela uste duten ikusteko ariketa bat egin zuen hura amaitzean kirol guztiak denonak direla azalduz. Norbera den bezalakoa maitatzea ezinbestekoa dela irakasten saiatu zen ere, azaroaren 29an kasu, ikasle batek beste baten inbidia zuenean hura esan baitzion ikaslea poz-pozik utziz.

Baina arestian esan bezala, irakasle asko berdintasunaren alde dauden arren, nahi gabe generoen arteko desberdintasun eta interesak indartzen jarraitzen dute berdintasunaren ikaspen eta irakaspenean emandako pausuak moteldu zein ahulduz eta sexismoa transmititzen jarraituz (Simón Rodríguez, 2010). Oso esanguratsua izan zen, esaterako, azaroaren 28an gertatutakoa, tutoreak ikasleei ondorengoa esan zien eta: “Badakit ez duzuela hau egin nahi, eta egia esan *coñazo* bat da, baina egin behar dugu”. Hala, argi geratzen da oraindik ere hizkuntzak sexista izaten jarraitzen duela. Horrenbestez, Simón Rodríguezek (2008) dioen bezala, oso garrantzitsua da errealitatea eta ikaskuntzak hizkuntza barneratzailea, berdintasunezkoa eta bidezkoa erabiliz deskribatu eta gauzatzea. Horretarako, sexismoaren ezaugarriak nonahi aldatu behar dira, izan ere, ezin da ahaztu hizkuntza eta pentsamendua bereiztezinak direla eta desberdintasunetik jasotako hizkuntza erabiltzeak desberdintasuna sorrarazten eta legitimatzen duela.

Aipatu gisa, tutorea hurrekin denbora gehien igarotzen duen irakaslea da, baina haurrak belaki antzekoak direla eta ingurunetik ikusten duten guztia xurgatzen dutela kontuan hartuz, irakasleen portaera guztiak, haiekin denbora gutxi igaro arren, beren memorieta markatuta geratzen dira (Ministerio de cultura, 1988). Beraz, gainontzeko irakasleen jarreraren inguruan ere zenbait puntu behatu dira. Hala nola, gizona den Gorputz Hezkuntzako irakasleak azaroaren 4ean egindako ariketa batean neskak alde batetik eta mutilak bestetik jarri zituen ezertarako nahastu gabe eta inolako logikarik jarraitu barik. Bestalde, orokorrean mutilen biolentziaren aurrean erantzuten ez duela



behatu da ere, azaroaren 6an kasu. Ostera, musikako irakasleak, emakume gaztea izanda, azkar antzeman zuen bere saioetan neska-mutilak nahasten ez zirela, eta horren aurrean ikasleak euren artean nahasteko ariketak egin ohi zituen, adibidez, abenduaren 5ean, ikasleak dantzan jarri baitzituen. Azkenik, ingeleseko irakaslearen jarrera behatu zen hau ere emakume gaztea izanik. Bada, abenduaren 19an gabonak gertu zeudenez ikasleei koloreztatzekeo fitxa bat banatu zien eta mutil batek bertan agertzen ziren jostailuak odolez beteta margotu zituen horietako bati ere labana pare bat margotuz. Hala, ikasleen marrazkiak ikustean mutil horrek islatutako biolentziaz arduratu ordez irakasleak barre egin zuen. Horrez gain, urtarrilaren 20an irakasleak *he* eta *she* erabiltzen ikasteko ariketa bat egin zuen eta denbora guztian ile motza zuten pertsonak mutil bezala deskribatu zituen *he* erabiliz, eta ile luzea zeukatenak, berriz neska bezala *she* erabiliz, hots, estereotipoei men eginez.

Hau ikusita eta oraindik ere oharkabean irakasleek erreproduzitzen dituzten jarrera eta transmititzen dituzten estereotipoen bitartez neska-mutilen arteko genero desberdintasuna sustatzen dutela kontuan hartuz, ezinbestekoa da hauek batez ere lehen hezkuntzako etapan haurrengan duten eraginaz kontzientzia hartzea, esaten eta egiten duten guztiak ikasleengan inpaktu handia izan dezakeela argi geratu baita (Ministerio de cultura, 1988).

### 5.3. Materialak eta edukiak

Subirats Martori eta Tomé Gonzálezek (2007) diotenez, eskola-kulturan emakumeen existentzia, hezkuntza-premiak, eta batez ere emakumeek kulturari bere adierazpen guztietan egiten dioten ekarpena ez dira aintzat hartzen, eta gutxiegitasun horrek nesken eta mutilen eskolatzean oso ondorio txarrak ditu nahiz eta, jakina, modu desberdinean eragiten dien. Hala eta guztiz ere, emakumeek kulturari egindako ekarpenak inoiz ez direnez kulturatzat hartu, irakasleentzat ere oso zaila da gabezia horretaz ohartzea. Beraz, eskola-kulturak mundu publikoan emakumeen existentzia ukatzen jarraitzen du.

Eskolako testuei buruzko azterketa asko egin dira, eta guztiek erakusten dute emakumeak historiari, gizarte-zientziei, natura-zientziei edo hizkuntzari buruzkoak izan, ez direla edo ia ez direla testuliburuetan agertzen. Eta gauzak ez dira hobetu,



arteko desberdintasun bakarra ilearen luzera zen: batek ile motza zuen eta besteak, berriz, luzea. Hau estereotipoek bizirik dirauten adierazle argia izan zen, material horrek zeharka neskek ile luzea eta mutilek ile motza izan behar duten mezua transmititzen baitu.

## 2. Irudia

*Zein da zein? fitxa*

Margotu eta idatzi:

Zein da zein?

Ezkerreko biak Jon eta Martin dira.  
Martinek ile korua dauka.  
Erdiko biak Josu eta Itziar dira.  
Eskuinekoak Ane eta Jone dira.  
Betaworekoduna Jone da.

Jon.      Jon      Ane


Martin.      Itziar      Jone da.

4      hamabost 15

Abenduaren 6an ere ikasgelan gizonen baleak arrantzatzen zituztela eta emakumeek talaiariaren deia etxez-etxe zabaltzen zutela landu zen Txanelako liburu baten bitartez. Horrela bada, berriz ere testuliburuetan pertsonaia femeninoek egiten dituzten jarduerak urriak, ez oso dinamikoak eta ekimen eskasa eskatzen dutenak direla, eta pertsonaia maskulinoek egiten dituztenak, ordea, askotarikoak, dinamikoak eta sormena eskatzen dutenak direla ikus daiteke (Emakunde, 1990).

### 3. Irudia

#### *Balearen ehizari buruzko ariketa*



Azaroaren 20an egindako testuliburuaren azterketa aipatzea ere premiazkoa da, bertan hainbat puntu garrantzitsu behatu baitziren: alde batetik, Txanela liburuan munduaren sorrerari buruzko ariketa batean gizonak baino ez zirela agertzen argi ikusi zen.

### 4. Irudia

#### *Munduaren sorrera: gizonen irudiak*



Berdina gertatu zen ikasleek erabilitako liburuen azalei erreparatzean, gehienbat azaltzen zirenak mutilak baitziren: mutil astronauta, matematikako liburuko mutila, ... Gainera, liburu osoan zehar ere gizonak sarritan azaltzen ziren, hala nola, artelanei buruzko informazioa ematean, ilargiari buruz hitz egitean, ...


5. Irudia

*Txanelako liburuetako baten azala: mutil astronauta*



6. Irudia


*Txanelako liburuetako baten azala: mutil astronauta*






## 7. Irudia

### Artelana: Miró



## 8. Irudia

### Ilargia arrantzatzen zuen gizona




Baina emakumeen irudiak zituzten orrialdeak aurkitzea, berriz, lan zaila izan zen, eta agertzen zirenean printzesa gisa azaltzen ziren gehienbat. Hala nola, Txanelako

liburuetako baten azalean neska bat printzesaz jantzita azaltzen zen, eta liburu berdinean Nafarroako Berengela erreginaren janzkera eta apaingarriak deskribatzeko ariketa bat zegoen ere. Hala, argi ikusten da liburuetan ere emakumeek zein gizonek dituzten rola oso markatuta daudela, eta arestian esan bezala, testuliburuak gizartean oraindik ere existitzen diren eskema diskriminatzaileen salbuespenak ez direla, sexismoa transmititzen jarraitzen baitute (Emakunde, 1990).

## 9. Irudia

*Txanelako liburuetako baten azala: neska printzesa*



## 10. Irudia

*Nafarroako Berengela erreginaren janzkera eta apaingarriak deskribatzeko ariketa*



Baina gorago esan bezala, irakasle asko berdintasunaren alde dauden garai hauetan, hezitzaile asko hezkidetzan aurrerapausoak ematen saiatzen dira (Simón Rodríguez, 2010) baita materialei dagokienez gauzak hobetzen ere. Horrela bada, azaroaren 12an, adibidez, tutoreak ikasleek barneratuta zituzten estereotipoak ikusteko ariketa bat burutu zuen. Hala, ikasle bakoitzari paper zat banatu eta paperaren erdian marra bat eginez, alde batean NESKA eta bestean MUTILA jartzeko eskatu zien. Behin ikasle guztiek agindutakoa egin zutela, tutoreak hurrengo hitzak esan eta ikasleek alde batean edo bestean kokatu behar izan zituzten: arrosa, baloia, sentibera, indartsua, jertsea bihotzarekin, kamioilaria, urdina, irakaslea, jertsea superheroiarekin, ile-apaintzailea eta negartia. Ariketa horren bitartez gizartean dauden genero desberdintasunak eskolan islatzen direla ikusi zen, izan ere, ikasle gehienek honako sailkapena egin zuten:

<b>NESKA</b>	<b>MUTILA</b>
Arrosa	Baloia
Sentibera	Indartsua
Jertsea bihotzarekin	Kamioilaria
Irakaslea	Jertsea superheroiarekin
Ile-apaintzailea	Urdina
Negartia	

Halaber, abenduaren 12an ikasleek kirolek generoa dutela uste duten ikusteko fitxa bat egin zuten, eta ondoren, eskolako patioan bakoitzak betetzen dituen espazioen inguruko fitxa. Azken fitxa horrek Subirats Martori eta Tomé Gonzálezek (2007) adierazitakoa baieztatu zuen, izan ere, bertan espazio askotan giza talde batzuen boterea eta besteen menpekotasuna adierazten duten harremanak daudela islatzen zen, eta fitxa horri esker ikasleekin horren inguruko lanketa txiki bat egin zen.



## 11. Irudia

Fitxa: Kirolek generoa al dute?

Izenak: \_\_\_\_\_

Sailkatu kirolak ondorengo taldeetan, gure eskolako egunerokotasunean pentsatuz:

MUTILAK	NESKAK	MIXTOA
<p>Timinibolantza.</p>	<p>Irudiak aburuzkotia.</p>	<p>guzkara, saskibaloia, darta, gurutza, Gurutza, Nesketak, Eskubaloia, Judo, Tenis.</p>

## 12. Irudia

Fitxa: Nork hartzen du espazio gehien jolalastokian?

GURE JOLASTOKIA

MARGOTU

Mutilen espazioa: GORRIA

Nesken espazioa: VERDEA

Espazio mixtoa: MOREA

• Nork hartzen du espazio gehien jolalastokian? Zergatik?

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

Atal honekin amaitzeko, García Peralesek (2012) dioten bezala material didaktikoa eta batez ere eskolako testuak ezberdintasunak eraiki eta indartzen dituzten mekanismo ez-kontzienteak eta tresna pedagogiko baliotsua direla esan daiteke.

Gainera, curriculumeko edukiez gain, maskulinitasunaren eta feminitasunaren ikuspegia transmititzen dute eta beraz, estereotipo sexistak transmititzeko iturri eraginkorrenetako bat dira. Hala, egindako behaketari esker berdintasunerako bidean aurrera egiteko erabiltzen diren materialak oso urriak direla ikusi denez eta esandako guztia kontuan hartuz, ikasgeletan erabilitako materialen bidez inkontzienteki transmititzen diren estereotipoak eta aurreiritziak nabarmenduz emakumea diskriminatzen duten mekanismoekiko jarrera kritikoak sustatu eta baliabide eta alternatiba ez-sexistak erabili beharko lirateke.

## 6. Ondorioak

Egindako behaketan oinarrituz, argi geratzen da ikasle eta irakasle askok gizon eta emakumeok aukera-berdintasunean heziak garen teoria barneratuta daukaten arren praktikan ez dela hori islatzen. Orokorrean emaitzetan ikus daitekeen bezala, hezkuntza hezkidetzaillearen bidean aurrerapasoak eman diren arren, eskola gizartearen isla den heinean oraindik ere ikasle zein irakasleek genero estereotipoak barneratuta dauzkate, eta hori gutxi balitz, bertan erabiltzen diren material eta edukiek kutsu sexista daukate: emakumeen presentzia oso eskasa da, emakumeak protagonisten %25,8a baino ez baitira, pertsonaia femenino zein maskulinoak agertzen direnean rol estereotipatuak betetzen dituzte, izan ere, gizonak borrokan edo ekintza dinamikoak egiten agertzen diren bitartean, emakumeak gehienetan zaintza lanetan edo jarduera lasaiak egiten azaltzen dira, eta abar (Emakunde, 1990).

Hala ere, aipatu bezala, zoritxarrez material didaktikoa ez da berdintasunaren bidean aurrera egiteko oztopoak jartzen dituen bakarra, ikasle zein irakasleek genero estereotipoak barneratuta baitauzkate. Hala islatu da, esaterako ikasleek erabiltzen dituzten jostailuetan, hauek oraindik ere neskentzako eta mutilentzako kirolak daudela adieraztean, mutilak neskak baino hobeagoak direla esatean, mutilek indarra eta biolentzia ezaugarri guztiz positibotzat jotzean eta sentimenduak baztertzean, edota zenbait neskek edertasun eta argaltasuna ez ezik printzipe batengandik salbatuak izan behar duten printzesen ipuinak ere idealizatzean.

Gorago esan bezala, estereotipo eta sexismoaren barnerapen horretan irakasleak ere ez dira atzean geratu, izan ere, ikasleei oharkabean zenbait ideia transmititu dizkiete, hala nola, neskek ile luzea eta mutilek ile motza dutela. Gainera, zenbaitetan hiztegi sexista erabili dute ere, adibidez, ikasleen tutoreak ariketa bat “koñazo” bat zela esatean. Horrez gain, argi geratu da mutilen indarkeriazko jarrerak guztiz normaltzat hartzen direla (Subirats Martori eta Tomé González, 2007) eta horrenbestez horien aurrean irakasleek askotan erantzunik ez dutela. Hala, indarkeria desagerrarazteak prozesu luzea eskatzen duela erraz

antzman daiteke, balio positibo, dibertsio eta harrotasun gisa maskulinitasunari erabat lotuta baitago. Horregatik, gai hau lantzen hasi behar dela eta mutilei beren beldurrak gainditzeko eta beren hurkoei indarkeria fisikoa erabiliz aurre egiteko eskatzen jarraitu beharrean, jarduteko modu horiek gutxietsi behar direla eta jokabide arrazoitzaileei, adiskidetzailaiei, elkarrizketatzaileei, emozioei, enpatia-eta maitasun-gaitasunei ahalik eta baliorik handiena ematen hasi behar dela ulertzea premiazkoa da (Subirats Martori eta Tomé González, 2007).

Gauzak horrela izanda eta gizabanako bakoitzak genero-identitatea eskuratzeko prozesuan bizi den gizarteko generoari buruzko kultura-jarraibideak ikasten dituela kontuan hartuz (Itatí, 1995), eskolak eta irakasleok genero-identitatea eraikitzeari dagokionez berebiziko garrantzia daukagula ukaezina da, eta hortaz, Lehen Hezkuntzako etapa erabakigarria izan daiteke. Hori dela eta, irakasleok oharkabean transmititzen ditugun ideia eta estereotipoekin kontu handiz ibili behar dugu, haurrek horiek barneratu eta erreproduzitu ohi dituzte eta (Subirats, 2002). Hau guztia aintzat hartuz, hezkidetzak sustatuz eskolak feminista izan beharko luke, izan ere, hori horrela izan ezean, gizarteak bezala ez-parekidea edo matxista izaten jarraituko du (Hik Hasi, 2017).

Horrenbestez, eskolak gizartean nagusi dena erreproduzitu nahi ez badu eta neskak eta mutilak aukera berdintasunean hezi nahi baditu, sexuaren arabera estereotipo eta rola ezabatzen lagunduko duten berdintasuneko harremanak sustatu, sexu harremanak eta harreman afektiboak osasuntsuak, errespetuzkoak eta askeak izan daitezen lagundu, genero-indarkeria eta sexismoa sorburu duten indarkeria mota guztien prebentzioan aktiboki lan egin, emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenera egin dioten ekarpen sozial, zientifiko eta historikoa curriculumean txertatu, genero estereotipoak alde batera utziz ikasle guztiek hezkuntza-sisteman jarraituko dutela bultzatu eta jarrera bortitz, matxista, homofobiko, lesbofobiko eta transfobikoak gaindituz ikasleei beren harremanak berdintasun, errespetu, alaitasun eta askatasunetik bizitzen lagundu behar die (Hik Hasi, 2017).

Alegia, eskolak, ez soilik bere egitura formalean, baizik eta hezkuntzaren

ideologia eta jardunean ere genero-desberdintasunak desagerraraziz ikasleak hezkidetzan hezi behar ditu (Hik Hasi, 2017). Izan ere,

“Avanzar hacia la coeducación es encontrar hoy las soluciones para seguir desarrollando el camino de la igualdad, entendida como igual acceso a todas las posibilidades (...), y de la libertad, necesaria para que cada ser humano llegue a ser el máximo de lo que pueda ser, llegue al máximo despliegue de sus capacidades, de su capacidad de ser feliz, de crear, de producir alegría y riqueza en su entorno, es decir, de producir vida propia y ajena” (Subirats Martori eta Tomé González, 2007:51).

## 7. Bibliografia

Altsasuko Udala. (2008). Historia. Honako webgune honetatik berreskuratua:  
<http://www.alsasua.net/eu/alsasua/historia/>

Altsasuko Udala. (2016a). Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna. Honako webgune honetatik berreskuratua:  
<http://www.alsasua.net/eu/servicios/igualdad-de-oportunidades/>

Altsasuko Udala. (2016b). Eskolak,/Ikastetxeak/Ikastolak. Honako webgune honetatik berreskuratua:  
<http://www.alsasua.net/eu/ayuntamiento/guia-de-interes/colegios-ikastolas/>

Álvarez López, C. (2017). *Sexismo en el juego: Aproximación a la publicidad de juguetes desde una perspectiva de género*. Universidad Zaragoza, Zaragoza.

Barreiros Pinto, A.G eta Bastidas Villacrés, M.J. (2015). *Influencia de las princesas Disney en la construcción de la feminidad en la infancia*. Universidad Politécnica Salesiana Sede Quito, Quito.

Carrillo Siles, B. (2009). IMPORTANCIA DEL CURRÍCULO OCULTO EN EL PROCESO DE ENSEÑANZA-APRENDIZAJE. *Innovación y experiencias educativas*, 14, 1-10.

El Heraldoko erredakzioa. (2016). *¿Los cuentos de princesas ayudan a crear estereotipos en los niños?* Honako webgune honetatik berreskuratua:  
<https://www.elheraldo.co/tendencias/como-influyen-los-cuentos-de-princesas-en-las-ninas-271005>

Emakunde. (1990). *Testu liburuen bidez zabaltzen al ditugu sexu-baloreak?* Honako webgune honetatik berreskuratua:  
[https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_folletos/eu\\_emakunde/adjuntos/folletos.h01.testu.liburuen.bidez.zabaltzen.al.ditugu.sexu-baloreak.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_folletos/eu_emakunde/adjuntos/folletos.h01.testu.liburuen.bidez.zabaltzen.al.ditugu.sexu-baloreak.pdf)

Emakunde. (2018). *Soldata arrakala Euskal Autonomia Erkidegoan*. Honako webgune honetatik berreskuratua:

[https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_informes/eu\\_emakunde/adjuntos/soldata\\_arrakala\\_eae\\_2018.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes/eu_emakunde/adjuntos/soldata_arrakala_eae_2018.pdf)

Esteban Valencia, I. (2015). *Ikastetxeko patioa: baterako hezkuntza eta ezkutuko kurrikuluma hezkuntza artistikotik*. Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea.

Euskal Herriko Bilgune Feminista (2011). *Hezkidetza lau haizetara*. Honako webgune honetatik berreskuratua:  
[https://issuu.com/ehbfeminista/docs/hezkidetza\\_lau\\_haizetara\\_egitasmoa](https://issuu.com/ehbfeminista/docs/hezkidetza_lau_haizetara_egitasmoa)

Ferández, M. (2018). *Eskolan bizikidetza hobetzeko hezkidetza*. Honako webgune honetatik berreskuratua:  
[http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/proyecto\\_nahiko\\_formation/es\\_def/adjuntos/2018.04.17.marivi\\_fernandez.pdf](http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/proyecto_nahiko_formation/es_def/adjuntos/2018.04.17.marivi_fernandez.pdf)

Fernández Palomares, F. (2003). *Sociología de la educación*. Madril: Pearson Educación.

García Perales, R. (2012). La educación desde la perspectiva de género. *Revista de la Facultad de Educación de Albacete*, 27, 1-18.

Hik Hasi (2017). Eskola feministarantz. Generoaren motxila husten [linean] *Hik Hasi: albistegia*.  
<http://www.hikhasi.eus/Albistegia/20170307/eskola-feministarantz-generoaren-motxila-husten>

INE. (2019). *Padrón. Población por municipios (2019)*. Honako webgune honetatik berreskuratua:  
[https://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/categoria.htm?c=Estadistica\\_P&cid=1254734710990](https://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/categoria.htm?c=Estadistica_P&cid=1254734710990)

Instituto de la mujer. (2008). *Guía de coeducación. Síntesis sobre la Educación para la Igualdad de Oportunidades entre Mujeres y Hombres*. Honako webgune honetatik berreskuratua:  
<http://www.inmujer.gob.es/observatorios/observIgualdad/estudiosInformes/docs/009-guia.pdf>

- Itatí, A. (1995). Socialización de género en la escuela primaria. *Boletín americanista*, (45), 177-187.
- Kawulich, Barbara B. (2006). La observación participante como método de recolección de datos. *Forum Qualitative Sozialforschung / Forum: Qualitative Social Research*, 6 (2), Art. 43. Honako webgune honetatik berreskuratua: <http://biblioteca.udgvirtual.udg.mx/jspui/bitstream/123456789/2715/1/La%20observaci%c3%b3n%20participante%20como%20m%c3%a9todo%20de%20recolecci%c3%b3n%20de%20datos.pdf>
- Lomas, C. (2003). *¿Iguales o diferentes? Género, diferencia sexual, lenguaje y educación*. Bartzelona: Paidós Educador.
- Ministerio de cultura. (1988). *Manual de acción: Cómo llevar a la práctica la igualdad entre sexos*. Madrid: Instituto de la Mujer.
- Murillo Estepa, P. (2012). Curriculum oculto. *Biblioteca virtual Omegalfa*. Honako webgune honetatik berreskuratua: <https://studylib.es/doc/5133013/sobre-el-curr%C3%ADculum-oculto-escolar>
- Nafarroako Gobernua. (2017). *SKOLAE berdin bidean creciendo en igualdad*. Honako webgune honetatik berreskuratua: <https://consejoescolar.educacion.navarra.es/web1/wp-content/uploads/2017/09/SKOLAE-Berdin-Bidean-Creciendo-en-Iguadad Programa.pdf>
- NASTAT. (2019). *Renta anual neta media (2018) por persona, unidad de consumo y hogar, tasa de riesgo de pobreza, índice de Gini y distribución de la renta S80/S20*.
- NASTAT. (2020a). *Estadística de renta de la población navarra Comunidad Foral de Navarra. Año 2018*.
- NASTAT. (2020b). *Condiciones de Vida Año 2018. Población residente en Altsasu/Alsasua (de 15 años y más), por conocimiento de Euskera*.
- Peña Acuña, B. (2015). *La observación como herramienta científica*. ACCI (Asoc. Cultural y Científica Iberoameric.).



- Puleo, A. H. (1995). Igualdad y androcentrismo. *Tabanque: revista pedagógica*, (10), 71-82.
- Puleo, A. H. (2005). El patriarcado:¿una organización social superada? *Mujeres en Red. El periódico feminista. Temas para el debate*, 133, 39-42. Honako webgune honetatik berreskuratua:  
<https://www.te.gob.mx/genero/media/pdf/168cdbe84f7f095.pdf>
- Radios Libres. (2014). *Capítulo 1: El Patriarcado*. Honako webgune honetatik berreskuratua: <https://radioslibres.net/capitulo-1-el-patriarcado/>
- Reizabal, L. (2017). *Hezkidetzaren metodologia: behaketa, desberdintasunen identifikazioa eta berdintasunerako aldaketak*. Honako webgune honetatik berreskuratua:  
[http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/proyecto\\_nahiko\\_formacion/es\\_def/adjuntos/2017.11.08.luixa\\_reizabal.pdf](http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/proyecto_nahiko_formacion/es_def/adjuntos/2017.11.08.luixa_reizabal.pdf)
- Reizabal Arruabarrena, I. (2019). *Hezkidetzaren metodologia: behaketa, desberdintasunen identifikazioa eta parekidetasunerako aldaketak*. Honako webgune honetatik berreskuratua:  
[http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/proyecto\\_nahiko\\_formacion/eu\\_def/adjuntos/2019.10.08.luixa\\_reizabal.pdf](http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/proyecto_nahiko_formacion/eu_def/adjuntos/2019.10.08.luixa_reizabal.pdf)
- Salas García, B. (1997). *Ikastetxearen hezkidetzaren eredua egiteko gida*. Gasteiz: Emakunde. Honako webgune honetatik berreskuratua:  
[http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/pub\\_guias/eu\\_emakunde/adjuntos/guia.04.01.elaboracion.modelo.coeducativo.centro.eus.pdf.pdf](http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/pub_guias/eu_emakunde/adjuntos/guia.04.01.elaboracion.modelo.coeducativo.centro.eus.pdf.pdf)
- Simón Rodríguez, M.E. (2008). *Orientación y coeducación para la igualdad*. Gasteiz: Emakunde. Honako webgune honetatik berreskuratua:  
[https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/proyecto\\_nahiko\\_formacion/es\\_def/adjuntos/2008.09.03.elena.simon.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/proyecto_nahiko_formacion/es_def/adjuntos/2008.09.03.elena.simon.pdf)
- Simón Rodríguez, M.E. (2009). *Hijas de la igualdad, herederas de injusticias*. Madrid: Narcea.

- Simón Rodríguez, M.E. (2010). *La igualdad también se aprende. Cuestión de coeducación*.  
Madrid: Narcea.
- Subirats, M. (2002). Rosa y azul: la transmisión de los géneros en la escuela mixta. *Mujer y educación: educar para la igualdad, educar desde la diferencia*. (8.atala, 149-161.orr.). Bartzelona: Graó.
- Subirats Martori, M. eta Tomé González, A. (2007). *Balones fuera. Reconstruir los espacios desde la coeducación*. Bartzelona: Octaedro.
- Taberner Guasp, J. (2008). *Soziologia eta hezkuntza. Hezkuntza-sistema gizarte modernoetan: funtzioak, aldaketak eta gatazkak*. Zarautz: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen zerbitzua.
- Zelandi I.P. (2020). Zelandi Herri-Eskola. Honako webgune honetatik berreskuratua:  
<https://zelandieskola.educacion.navarra.es/web/>

## 8. Eranskinak

### a. Dimentsioak

Lan honen helburuei erantzuteko behatu diren dimentsioak hurrengoak izan dira: ikasleak, irakasleak eta materialak eta edukiak. Hona hemen dimentsio bakoitzean zehatz mehatz behatutakoa zer izan den:

#### 1. *Ikasleak*

Dimentsio honi dagokionez, alde batetik taldeko nesken jarrerak behatu dira, bestetik mutilen jarrerak eta azkenik neska-mutilen arteko harremanak nolakoak diren.

#### 2. *Irakasleak*

Dimentsio honetan ikasle horien irakasleen jarrerak aztertu dira, bereziki, euren tutoreena.

#### 3. *Materialak eta edukiak*

Dimentsio hau material eta edukien azterketari dagokio, eta zehazki ikasgelan erabiltzen diren material eta transmititzen diren edukiek kutsu sexista duten behatu da.

## b. Txantiloia

- *Ikasleak*
  - Egoera berdinarean aurrean nola jokatzten dute neskek eta nola mutilek?
  - Nolakoa da ikasleen jarrera irakaslea mutila denean? Eta neska denean?
  - Gizarteko genero estereotipoak erreproduzitzen dituzte (jolasak, egiten dituzten marrazkiak, komentarioak, ...)?
  - Nolakoak dira nesken arteko harremanak? Eta mutilen artekoak?
  - Neska-mutilak haien artean harremantzen dira? Nolakoak dira harreman horiek?
  
- *Irakasleak*
  - Gizarteko genero estereotipoak erreproduzitzen dituzte?
  - Hiztegi sexista erabiltzen dute?
  - Zer egiten dute ikasleen komentario matxisten aurrean?
  - Berdintasunaren eta hezkuntza hezkidetzaillearen bidean aurrerapausoak emateko ahaleginik egiten dute?
  
- *Materialak eta edukiak*
  - Ikasgelan erabiltzen diren materialek berdintasuna sustatzen dute ala eduki sexista daukate?
  - Gizarteko genero estereotipoak ikasgelan erabiltzen diren materialetan islatzen dira?
  - Testuliburuetan, zenbatetan agertzen dira mutilak? Eta neskak?
  - Erabilitako materialetan mutilak agertzen direnean, zein rol daukate? Eta neskek?

### c. Landa lana

#### Azaroak 4

Gaur nire lehenengo eguna izan da eta behatuko dudan taldeko partaideak ezagutu ditut. 16 ikaslez osatutako Lehen Hezkuntzako 2. mailako taldea da: 1M, 3M, 5M, 7M, 8M, 11M, 12M, 13M eta 14M ikasleak mutilak dira eta 2N, 4N, 6N, 9N, 10N, 15N eta 16N ikasleak, berriz, neskek. Alegia, 9 mutil eta 7 neska osatutako taldea izango dut aztergai.

Haiekin izan dudan lehen kontaktua oso esanguratsua izan da, izan ere, patioa joan aurretik eskuak garbitzera joan garenean neska batzuk gerturatu zaizkit (2N, 9N eta 16N ikasleak) eta oso guapa naizela esan didate, eta patioetik bueltan, ordea, gertuen nituen mutilak (11M, 13M eta 14M) izandako futbol partidua kontatzera etorri zaizkit.

Gorputz Hezkuntzako klasera joan garenean, ikasleen txandalei erreparatu diet eta neska guztiek arrosa edo more koloreko zerbitu zeramatela ikusi dit. Hala, saioa hastean irakasleak jolas bat egiteko ikasleak bikoteka jarri ditu, baina ez ditu nahastu, hau da, alde batetik mutilak elkartu ditu eta bestetik neskek. Hala ere, jolasterakoan denak nahastu egin dira. Ondoren, irakasleak 2 ilara egiteko eskatu die, eta automatikoak neskek eta mutilak bereiztu dira.

Gorputz Hezkuntzatik bueltan, pasabidetik gindoazela mutil asko "bola ateratzen" egon dira zein indartsuak diren esanez eta haien artean indartsuena zein den eztabaidatuz. Ohiko ikasgelara iritsi garenean, barre artean mutil batek (3M ikaslea) beste baten (14M ikaslea) partez "zita" bat eskatu dit.

#### Azaroak 5

Gaur "marraren jolasa" egin dugu: ikasgelaren erdian marra bat marraztuz, gela bi zatitan banatu dugu. Orduan, ikasleak marraren gainean jarri dira eta tutoreak esaldi batzuk bota ditu, adibidez, "jarrera ona duzuela uste baduzue jar zaitezte eskuinaldean, eta jarrera txarra duzuela uste baduzue, ordea, ezker aldean". Hala, ikasleak haien usteen arabera marraren alde batean edo bestean kokatu behar izan dira. Esaldietako batzuk itxuraren ingurukoak izan dira ere, hala nola, "polita naizela uste dut edo ez dut uste polita naizenik", eta horiek entzuterakoan bi neska (15N eta 16N ikasleak) etengabe alde negatiboan jartzen zirela antzeman dut. Antza denez, tutoreak ere hori

antzeman du, jolasa amaitzerakoan ikasle horiei alde horretan zergatik jarri diren galdetu baitie. Orduan, 15N ikasleak lodi dagoenez bere aurpegia eta gorputza gustatzen ez zaizkiola esan du tutoreak irribarre eta begi ederrak dituela erantzunez. 16N ikaslearen erantzuna “itsusia naiz begi marroiak ditudalako, eta nik begi urdinak izan nahi ditut. Honen aurrean, tutoreak oso begi politak dituela esan dio.

Ondoren, klaseko ariketa bat egiteari ekin diote, zeinean euren hobbiak zeintzuk diren komentatu behar izan duten. Mutil guztiek euren hobbiaren artean futbola aipatu dute, eta neska askok, ostera, dantza. Gainera, 14M ikaslearen erantzuna hurrengoaren izan da: “nire hobbiak futbolera jolastea, futbola ikustea eta gauzak eraikitzea da”.

### Azaroak 6

Gaur ere Gorputz Hezkuntza izan dute ikasleek, eta egin dituzten jolasek lehiakortasuna sustatzen ez badute ere, haien artean konpetitibitate handia dagoela ikusi dut. Honen aurrean mutil askoren erreakzioa gainontzekoak jo eta bultzatzea izan den bitartean, neskena haserretu eta ohiukatzea izan dela antzeman dut. Gainera, 9N ikaslea negarrez hasi da ere. Honen aurrean, gorputz hezkuntzako irakasleak ez du ezer egin.

### Azaroak 7

Antza denez, aste batzuk Erdi Aroa lantzen daramatzate. Hori dela eta, denbora horretan zehar taldeka kartoizko gaztelu batzuk egiten ibili dira. Baina gaur, ikasleak klasera iritsi direnean haiek egindako gazteluak erdi margotuta zeudela ikusi dute, haiek margotu ez dituzten arren. Orduan, tutoreak jantokian geratzen diren ikasleak margotu dituztela azaldu die, eta ikasleak asko haserretu dira nesken eta mutilen erreakzioak oso desberdinak izanik. Neska batzuk triste jarri dira, eta beste batzuk, negar egiteari ekin diote (9N, kasu), eta mutilek aldiz, haserre bizian zeudela, biolentziaz jokatu dute: “Ukabilkada bat emango diet nire gaztelua margotu durenei!”. Hala, amorrua adierazteko oso modu desberdinak dituztela nabaria egin zait. Honen aurrean, tutoreak bihar eta astelehenean azkenengo orduan gazteluak margotzen jarraitzen utziko diela esan die.

Hurrengo orduan talde batean arazoak egon dira, izan ere, 4 pertsonen osatutako taldeetan eserita daude, eta taldekide bat, 9N ikaslea, hain zuzen, 4N ikaslea

molestatzen zebilen. Hori dela eta, 4N ikasleak ondoko taldean dagoen eta 9N ikaslearen “mutil-laguna” den 14M ikasleari hurrengoa esan dio: “14M! Esan 9N-ri geldi egoteko!!!”. Orduan, 4N ikasleak, bera agintzeko gai ez balitz bezala, 14M ikasleari ardura hori eman diola ikusi ahal izan dut, 4N ikasleak mutilaren hitzak bereak baino garrantzi edo autoritate handiagoa duela deritzola iruditu zaidalarik.

### Azaroak 11

Gaur, aurreko egunean bezala, gazteluak margotzen jarraitu dute eta 14M ikasleak bere taldearen gaztelua goitik behera aldatu du (gehiena apurtuz) bere ustez zegoen bezala itsusia zegoelako. Ondorioz, taldeko gainontzekoak berarekin haserretu dira eta bere erreakzioa bera ere haserretzea eta eskuetan zeukan arkatza apurtzea izan da hura bitan banatuz.

### Azaroak 12

Gaur tutoreak ikasleek barneratuta dituzten estereotipoak ikusteko ariketa bat egin du. Hala, ikasle bakoitzari paper zat banatu eta paperaren erdian marra bat eginez, alde batean NESKA eta bestean MUTILA jartzeko eskatu die. Behin ikasle guztiak agindutakoa egin dutela, tutoreak hurrengo hitzak esan ditu eta ikasleek alde batean edo bestean kokatu behar izan dituzte: arrosa, baloia, sentibera, indartsua, jertsea bihotzarekin, kamioilaria, urdina, irakaslea, jertsea superheroiarekin, ile-apaintzailea eta negartia.

Ariketa egin duten bitartean zenbait komentario egon dira. Adibidez, 3M ikasleak tutoreak sentibera hitza esan duenean ondorengoa esan du: “Nik nesken zatian jarriko dut mutilak erotuta gaudelako”, indartsua esatean “Beno, boxeoa egiten duten neskek ere badaude”, negartia esatean “Ba nik negar asko egiten duen neska bat ezagutzen dut”, eta irakaslea esatean, berriz, tutoreari hurrengoa esan dio: “Zu irakaslea eta mutila zara”. Azken hau esatean, 11M ikasleak “Baina neska irakasle gehiago daude”.

Hitz guztiak esan ostean, tutoreak arbelan ikasleek bete behar izan duten taula marraztu du eta ikasleek hitz bakoitza non kokatu duten jakiteko galdezka hasi da galdera hau botaz: “Nork jarri du \_\_\_\_\_ nesken multzoan? Eta mutilen multzoan?”. Horrela bada, ikasleek haien erantzunen arabera eskua altxatu behar izan dute eta tutoreak gehiengoaren erantzuna arbelean apuntatu du azpiko taula lortuz:





Ikasleak froga egiten hasi aurretik, tutorearen azalpena jaso dute, eta egin beharrekoa azaltzean “erregeak” jartzen duen tokian “erregea eta erregina” jarri beharko lukeela esan die hura zuzentzeko eskatuz.

#### Azaroak 14

Gaur ikasleak patiora ateratzeko ilaran zeudela 3M eta 8M ikasleak elkarri jotzen zeuden ostikoak etab. emanaz. Hori ikusita, 3M 8Mrengandik aldendu eta zertan zeuden galdetu diet. Orduan, 8M ikasleak jolasean zeudela erantzun dit, eta 3M-ren aurpegia ikusita hori gustatzen zaion galdetu diot “beno... bai” erantzuna jasoz. Nik ez dirudiela eta elkarri mintzeak inolako graziarik ez duela esan diet egoera hori berriz ere ez errepikatzeko eskatuz. Hala ere, ez da horrela jokatzeko duten lehenengo aldia, izan ere, askotan atsedendian “lucha libre” egiten dutela kontatu dit 2N ikasleak.


#### Azaroak 15

Atzo itsasoa eta piraten inguruko gaia lantzen hasi ziren, eta gai guztiekin egiten duten bezala, ikasleek gai honekin harremana daukaten jostailuak ekarri dituzte denbora librea daukatenean jolastu dezaten. Ikasleek denetarik ekarri dute: oskolak, piraten panpinak, pirata-itsasontziak, etab. Hala ere, neskek eta mutilek ekarritako jostailuak oso desberdinak izan dira.

Gaur bada, egin beharrekoa amaitu dutenean tutoreak atsedena hartu edota jolasteko denbora librea utzi die eta azpiko argazkietan ikus daitekeen bezala neskek haietako batek klasera ekarritako pirata-itsasontzi arrosa batekin jolasten egon dira “Pin y Pon”-ekin. Mutilak, bitartean, eurek ekarritako benetako pirata-itsasontzien antza duten itsasontzi batzuekin jolasten, gauzak eraikitzen eta legoekin jolasten egon dira.



*Neskek ekarritako jostailuak*



*Mutilek ekarritako jostailuak*

### Azaroak 18

Gaurko Gorputz Hezkuntzako saioan oreka lantzeko jolas bat egin dute ikasleek, zeinean bankuetan binaka (nahi izan duten bezala) zutik jarriz eta bertatik jaitsi gabe beste aldera pasatzea lortu behar izan duten. Helburua lortzeko, denek euren bikoteen laguntza behar izan dute, izan ere, elkarri besarkatu edo estu heldu behar izan diote. Hala ere, mutil gehienek ez dute helburua lortu, ez baitute elkarri besarkatu nahi izan. Neskek, berriz, ez dute inolako arazorik izan.

### Azaroak 20


Gaur ikasleak Gorputz Hezkuntzako saiora joan direnean euren testu liburuak behatzen aritu naiz eta neska eta emakumeak oso gutxitan agertzen direla somatu dut. Hala, gehienetan mutilak eta gizonak aurkitu ditut, batez ere liburuetakoa azaletan. Hona hemen liburuei ateratako zenbait argazki:



*Munduaren sorrera: gizonen irudiak*




*Txanelako liburuetako baten azala: mutil astronauta*




*Matematikako liburuaren azala*





Artelana: Miró



Ilargia arrantzatzen duen gizona



Txanelako liburuetako baten azala: neska printzesa



Nafarroako Berengela erreginaren janzkera eta apaingarriak deskribatzeko ariketa

## Azaroak 21


Egun askoz hori behatzen daramatzadan honetan, gaur 2N eta 9N ikasleen artean lehiakortasun handia dagoela baieztatu dezaket: lehen froga bat egin behar izan dute ikasleek, eta 9N ikasleak 2N ikasleari kopiatu nahi izan dio, baina hau konturatu da eta haserretu egin dira 9N ikasleak berak kopiatu ez duela esan diolako. Gero, denbora librean izan dute eta 9N-k 2N ikasleak paperezko liburuxka bat egin duela ikusi duenean, berdina egiten hasi da. 2N ikaslea hortaz jabetu denean, 9N-rekin haserretu da eta azken honek esan dio berak ez diola kopiatu, 2N ikasleak berari kopiatu diola baizik. Hori dela eta, egun osoan zehar elkarri hitz egin gabe egon dira.

## Azaroak 25

Gaur, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako eguna den honetan, tutoreak ez du ikasleak horren jakinaren gainean jartzeko ezer berezirik aipatu. Hala ere, ikastetxeak pasabidean beheko argazkian ikusten den “Berdintasunaren txokoa” jarri du ikasle guztiak ikus dezaten, baita nahi dutenek haientzako tratu onak zer diren jartzeko aukera emateko txoko txiki bat ere.




*Berdintasunaren txokoa*




*Emakumeen aurkako indarkeriaren iceberg-a*







16N ikaslearen fitxa



2N ikaslearen fitxa

### Azaroak 28

Gaur aditzak ikasteko fitxa bat egiten hasi behar zirela, ikasle batzuk kexaka hasi dira egin nahi ez zutelako. Orduan, tutoreak hurrengoia esan du: “Badakit ez duzuela hau egin nahi, eta egia esan *coñazo* bat da, baina egin behar dugu.”

Aurrerago, tutorearekin bakarrik geratu naiz, eta guraso bilerak gaur hasten zirela kontatu dit. Hortaz, bileretara nortzuk joan ohi diren galdetu diot, eta 2N ikaslearen kasuan izan ezik, gainontzeko ikasleen amak etortzen direla esan dit. Gainera, patioko ordua iritsi denean hori baieztatu ahal izan dut, ikasle batzuen amak baino ez ditut ikusi.

### Azaroak 29

Gaur emozioak lantzen egon gara, eta inbidiaren inguruan hitz egitean, tutoreak ikasleei aste honetan zehar emozio hori sentitu duten galdetu die. Orduan 15N ikasleak baietz esan du, eta tutoreak zergatik galdetu dionean 16N ikaslearen enbidia duela esan du, baina ez du arrazoia esan nahi izan. Ondoren, tutoreak bere arrazoiak kontatzera

animatu du, eta 16N argal dagoenez printzesa bat dirudielako dela esan du. Hori entzutean, tutoreak norbera den bezalakoa ederra dela esan die, eta 15N ikaslea poz-pozik geratu da.

Azken orduan denbora librea utzi die tutoreak, eta neska guztiak musika jarri eta dantzatzen eta lasai-lasai margotzen egon diren bitartean, mutilak jostailuzko itsasontzi, marrazo eta legoekin jolasten egon dira nahiko era bortitzean.

### Abenduak 2

Gaurko azken orduan ikasleek denbora librea izan dute eta 10N ikasleak paperezko "estutxe" bat egin du. Orduan, 14M ikasleak 10N-k egindakoa ikusi duenean hurrengoa esan du: "Ba nik horrekin labana bat egingo nuke jolasteko!". Jarraian, azpiko paperezko labana egin du.




*14M ikasleak egindako paperezko labana*

### Abenduak 3

Gaur lanean oso ondo aritu direnez, irakasleak azken saioa libre utzi die ikasleei. Bakoitza berera zegoen bitartean, ni bueltaka ibili naiz eta 2N eta 16N ikasleak lasai-lasai marrazten ikusi ditut. Orduan, haiengana gerturatu naiz euren marrazkiak ikustera eta hurrengoa marraztu dutela ikusi dut:





16N ikaslearen marrazkia



2N ikaslearen marrazkia (aurreko partea)

Marrazki hauek ikusteak asko harritu nauenez, zer marraztu duten galdetu diet euren marrazkiak nola interpretatzen zituzten jakiteko. Orduan, 16N ikasleak bere marrazkian erreginak printzesa giltzapetzen zuela eta printzipea bera salbatzera zihoala kontatu dit, eta 2N ikasleak, ordea, marraztutakoa oso argi ez zuela esan dit. Hau ikusita, euren marraztutako istorioa idaztea proposatu diet, eta 2N ikasleak nire proposamena onartu du azpiko argazkian ikusten den bezala ondorengoa idatziz:

“Egun batean gaztelu txiki batean printzesa bat bizi zen zergaitik sorgin bat enzerratu zion baina printzipe bat joan zen euskalherriko banderarekin oilukatu zuen printzesa ezin duzu zerbait utilago ekarri esaten dio ez!!! Mugimendu arraroekin distraitzen dio eta aprobeztatzen du ies egiteko. KATU KATU KATU IPUIN AU BUKATU”.

Egun batean gaztelu txiki batean printzesa bat bizi zen zergaitik sorgin bat enzerratu zion baina printzipe bat joan zen euskalherriko bandera rekin oilukatuzuen printzesa ezin duzu zerbait utilago ekarri esaten dio ez!!! Mugimendu arraroekin distraitzen dio eta aprobeztatzen du ies egiteko. KATU KATU KATU IPUIN AU BUKATU.

2N ikaslearen marrazkia (atzeko partea)

#### Abenduak 4

Gaur testu bat irakurtzen geundela “altxorra” hitza agertu da, eta 14M ikasleak mugimendu arraroak eginez hurrengo esan du: “Pitilina zela uste nuen! Altxorra da txorra!”. Orduan, 3M ikaslea barrezka hasi da aurrekoari grazia jarraituz eta berak esan eta egindakoa errepikatuz. Honen aurrean, tutoreak ez du ezer esan.


Hurrengo orduan ikasleek piratei buruzko ipuin bat asmatu behar izan dute taldeka, eta ondorioz, aurretik honi izenburua jarri behar izan diote. Hala ere, askok ez zekiten zer jarri, eta tutoreak laguntzarren “Pirata beldurgarria edo Jon pirata jarri dezakezue, edo printzesa pirata liraina... Nahi duzuen!” Behin guztiek euren istorioei izenburua jarri dietela, istorioa idazteari ekin diote jarriko zutena talde txikietan adostuz. Baina talde batean arazoak egon dira, izan ere, 3M ikasleak ez du bere taldekoek (2N, 4N eta 16N) proposatu dutena onartu, eta hortaz ez dute ezer idatzi. Haien txanda iritsi denean, 2N ikasleak 3M-k berea ez zen ideiarik onartzen ez zuela esan du, baita azken honek soilik pertsonak eta animaliak hiltzea proposatzen zuela ere.

#### Abenduak 5

Gaur, musikako gelara igo gara. Gela horretan beti nahi duten bezala esertzen dira, eta musikako irakasleari eta bioi oso nabarmena egin zaigu mutil guztiak alde batean eta neska guztiak bestean zeudela. Gainera, 2N ikasleak horren inguruko komentario bat egin du ere. Horregatik, irakasleak “Konturatu zarete nola eseri zareten? Ba altxa ipurdiak eta goazen dantzatzera, ea pixka bat nahasten zareten!” esan die. Hala ere, binaka dantzatu behar izan dute eta gaur 5 neska eta 9 mutil zeudenez, bikote bat izan ezik, gainontzekoak ez dira nahastu.

#### Abenduak 6

Gaur, azpiko argazkian azaltzen den baleen ehizari buruzko ariketa egiten geundela, liburuan baleak arrantzatzen zituztenak gizonak zirela azaldu da, eta tutoreak ikasleei hori ondo iruditzen zaien galdetu dienean gehienek ezetz esan dute, baina 3M ikasleak “Bai, emakumeek etxean egon behar dutelako” esan du. Hala ere, tutoreak ez du azken honen komentarioa entzun, eta emakumeak ere ehizatzeiko gai zirela eta direla esan die ikasleei.




*Balearen ehizari buruzko ariketa*

### Abenduak 9

Gaurko Gorputz Hezkuntzako saioan jolas berri bat egin dute. STOP jolasaren antzekoa izan da, hau da, ikasle batek besteak harrapatu behar izan ditu eta ikasleek harrapatzailea gertu zutenean STOP esan eta gelditu geratuz harrapatuak ez izateko aukera izan dute. Baina azken hauek jolasten jarraitu ahal izateko, beste norbaitek besarkada bat eman behar zien. Hortaz, ikasle guztiek neskei besarkatzeko eskatu diete, mutilek ez baitute besarkadarik eman nahi izan.

### Abenduak 10

Gaur tutoreak ikasleei bakoitzak gutun azal bat egitea proposatu die bakoitzak nahi duenari zertan hobetu duen edota eman nahi dion mezu positiboa idatz diezaion. Orduan, 14M ikasleak hurrengo esan du: "Jarri dezakegu futbolean nork hobetu duen!".




*4N ikasleak egindako gutunazala*



*6N ikasleak egindako gutunazala*



3M ikasleak egindako gutunazala



1M ikasleak egindako gutunazala

### Abenduak 12

Gaurko tutoretzako ordua oso interesgarria izan da. Izan ere, gehienetan bezala ikasleak talde txikietan eseri eta azpiko argazkiko fitxa egin dute. Hau da, eskolako egunerokotasunean pentsatuz hurrengo kirolak sailkatu behar izan dituzte mutilenak, neskenak ala mixtoak diren esanez: futbola, saskibaloia, txirrindularitza, gimnasia erritmikoa, dantza, igeriketa, karatea, irristaketa, esku-pilota, judo eta ballet-a. Hala, azpian ikus daitekeen bezala, 1M, 6N, 10N eta 14M ikasleek osatutako taldeak ondorengo sailkapena egin du: txirrindularitza mutilen kirola da, gimnasia erritmikoa neskena eta gainontzeko guztiak, ostera, mistoak.

Izenak: [REDACTED]

Sailkatu kirolak ondorengo taldeetan, gure eskolako egunerokotasunean pentsatuz:

MUTILAK	NEKAK	MIXTOA
txirrindularitza	igeriketa	futbola, saskibaloia, dantza, igeriketa, eskua-pilota, judo, ballet-a.

Kirolen sailkapena: 1M, 6N, 10N eta 14M ikasleek betetako fitxa

7M, 11M, 13M eta 16N ikasleek osatutako taldeak, kirol guztiak mistoak direla adierazi du. 2N, 3M, 12M eta 15N ikasleek, berriz, futbola mutilen kiroltzat hartzen dute, baita esku-pilota eta judoa ere. Gimnasia erritmikoa, irristaketa, dantza eta ballet-a, ordea, nesken kirolak direla uste dute. Azkenik, 4N, 5M, 8M eta 9N ikasleek osatutako taldeak ez du ezer idatzi, izan ere, ez dute ezer adostea lortu. Jarraian tutoreak ikasleek adierazitakoa komentatu du haiekin batera, eta 14M ikasleak, kirol hori egiten normalean soilik mutilak ikusten dituen bere taldean txirrindularitza mutilen kirola dela jarri dutela esan du. Gainera, 2N ikasleak batzuetan futbolera jolastu nahi izan duela baina soilik mutilak ikusten zituenez animatu ez dela kontatu du. Bestalde, tutoreak mutilei dantzatzea gustatzen zaien galdetu die, eta 3M ikasleak hurrengoa bota du: “Niri ez zeren eta nire gurasoek dantzatzen ikusten banaute... Tontoa naizela pentsatuko dute hori bakarrik neskek egiten dutelako”. Horren aurrean tutoreak edonork dantzatu dezakeela esan du. Jarraian mutilei musika jarriko balu dantzan hasiko lirakeen galdetu die, eta denek ezetz erantzun dute.

Ondoren, talde berdinetan, ikasleek haien ustez eskolako jolastokiko espazio gehiena nork hartzen duen ikusteko fitxa bete dute, eta 1M, 6N, 10N eta 14M ikasleek, azpian ikus daitekeen bezala honakoa adierazi dute: espazio guztiak mistoak dira futbol zelaiko porteriak eta saskibaloiko saskiak izan ezik, horiek mutilek erabili ohi dituzte eta. Amaitzean, ikasleak espazioaren inguruko lanketa txiki bat egin zuen neskek espazio guztiak okupatzera animatuz.

**GURE JOLASTOKIA**

• Nork hartzen du espazio gehien jolastokian? Zergatik?

---



---

*Gure jolastokia: 1M, 6N, 10N eta 14M ikasleek betetako fitxa*



### Abenduak 13

Gaurko azken orduan ikasleek denbora librea izan dute. Hala, tutoreak klasean musika jarri du. Halako batean, “Erre zenituzten” abestiaren bideoklipa hasi da eta 4N eta 10N ikasleak hura ikusten geratu dira, abesti hori asko gustatzen baitzaie. Orduan, 4N ikasleak bideoan dantzan agertzen zen mutil batek kaxerazko gona zeramala ikusi du eta hurrengo esan du: “Ala, mutil hori neskaz mozorratuta dago!”. Tutoreak ez dio ezer esan.

### Abenduak 16

Gaur ikasleak egunkarietako berri batzuk aztertzen egon dira. Egin behar izan dutena hurrengo izan da: argazkietan eta berrien izenburuetan neskak eta mutilak zenbatetan agertzen diren zenbatu. Lortutakoa komentatzean, argi eta garbi gehienbat agertzen direnak mutilak direla ondorioztatu dute. Hortaz, tutoreak mutilek neskek baino garrantzi gehiago izatea zer iruditzen zaien galdetu die, eta gehienek bidezkoa ez dela esan dute, adibidez, 5M, 9N eta 2N ikasleek. Hala ere, 3M eta 14M ikasleek baietz esan dute “mutilak neskak baino hobeagoak direlako”. Horren aurrean tutoreak neskek eta mutilek eskubide berdinak dituztela eta hortaz berdintasunez tratatuak izan behar direla esan die.

### Abenduak 18

Gabonak gertu dauden honetan, eskuak garbitzera joan garenean honako kartelarekin egin dugu topo:



*Jostailu sexistarik ez*


Ikasle asko honi begira geratu dira: mutil talde handi bat agertzen diren “mutilen” jostailuen multzotik zeintzuk nahi dituzten esaten aritu dira eta ikasle asko jostailu sexistak zer diren galdetzen hasi badira ere, tutoreak ez die erantzunik eman eta eskuak garbitzera joan behar zutela esan die. Orduan, zenbait neska (2N, 10N, 15N eta 16N) niri galdetzera etorri zaizkit eta aise azaldu diet kartelean ikusten den bezala jende askok jostailu batzuk “neskenak” eta beste batzuk “mutilenak” direla esaten duen arren edo batzuk neskei eta beste batzuk mutilei bideratuta egiten dituzten arren eurek nahi dutenarekin jolastu dezaketela jostailu guztiak denontzat direlako. Honen aurrean, 2N ikasleak kartelean agertzen diren bi multzoetako zenbait jostailu seinatu eta hurrengoa esan du: “Egia da Ane, niri jostailu hauek (“nesken jostailuak?” multzoko batzuk) gustatzen zait baina beste hau, hori eta hura (“mutilen jostailuak?” multzoko batzuk) ere gustatzen zaizkit eta ez du inporta!”. Gainontzeko neskek ere 2N ikasleari eta bioi arrazoa eman digute eta poz-pozik klasera bueltatu gara. Mutilak ordea berera ibili dira nik azaldutakoari inongo kasurik egin gabe.

### Abenduak 19

Atzo esan bezala, gabonak gertu ditugu eta ingeleseko hainbat saioetan ikasleak zenbait jostailuen izenak ikasten egon direnez, gaur ingeleseko irakasleak jostailu batzuk margotzeko fitxa banatu die. Ikasle bakoitzak bere fitxa nahi izan duen bezala margotu du, eta ikasle batzuek bereziki margotutako fitxek arreta deitu didate, adibidez, 14M ikasleak margotutakoa. Goian ikus daitekeen bezala, 14M ikasleak marrazkian agertzen diren jostailu asko odolez beteta margotu ditu, eta horietako bati ere labana pare bat margotu dizkio. 9N ikasleak, ordea, marrazkia oso “goxo” margotu du jostailu horiek normalean diren bezala margotuz eta horretarako kolore argi eta leunak erabiliz.



14M ikasleak margotutako fitxa



9N ikasleak margotutako fitxa


Goian ikus daitekeen bezala, 14M ikasleak marrazkian agertzen diren jostailu asko odolez beteta margotu ditu, eta horietako bati ere labana pare bat margotu dizkio. Bere marrazkia ikustean, mutil gehienek 14M-k egindakoa kopiau dute. 9N ikasleak, ordea, marrazkia oso "goxo" margotu du jostailu horiek normalean diren bezala errepresentatuz eta horretarako kolore argi eta leunak erabiliz. Gainontzeko nesken marrazkiak oso antzekoak izan dira 10N ikaslearena izan ezik, berak ere 14M ikasleak egindakoa kopiau baitu. Ingeleseko irakasleak ikasleen marrazkiak ikustean barre egin du.

### Urtarrilak 20

Gaurko ingeleseko klasean *he* eta *she* noiz erabili behar diren ikasten hasi dira eta jasotako azalpenak ulertu dituztela ziurtatzeko, ikasle bakoitzak 2 esaldiren bitartez klaseko norbait fisikoki deskribatu behar izan du. Hala, 13M ikaslea bere esaldiak irakurri dituen lehenengoa izan da ondorengoa esanez: "*Has got short hair. Hasn't got long hair*". Orduan, ingeleseko irakasleak "Ez duzu *he* edo *she* esan, baina bueno, *short hair* esan duzunez badakigu deskribatzen duzun pertsona mutila dela". Hala ere, klasean ile motza duen neska bat ere badago, 2N ikaslea, hain zuzen.



Aurrekoarekin jarraitzeko, azpiko argazkian ikus daitekeen jolasa egin dute: “3 en raya” antzekoa. Orduan, irakasleak pertsona desberdinak marraztu ditu arbelean: batzuk bizardunak ziren, beste batzuk ile luzea zuten, beste batzuk ile motza, ile ilun edo argia... Hala, ikasleek karratu bat markatu ahal izateko bertan zegoen pertsona deskribatu behar izan dute, eta haiek ez ezik, irakasleak ere denbora guztian ile motza zuten pertsonak deskribatzerakoan *he* erabili du, hau da, mutilak bezala deskribatu ditu, eta ile luzea zeukatenak, berriz neska bezala *she* erabiliz.



*Ingelesezko irakasleak asmatutako jolasa*

## Urtarrilak 22

Eskolako ihauteri jaialdia gertu ikusten den honetan, horren inguruan hitz egiten aritu gara gaur. Hala, tutoreak aurten eskolako maila bakoitzari kolore bat esleitu diotela eta kolore horrekin zerikusia duen mozerroa aukeratu behar duela azaldu du. Hala, 2. mailari kolore txuria egokitu zaiola esan die ikasleei kolore horretakoak izan daitezkeen zenbait mozerro proposatzea eskatuz. Hauek izan dira ikasleek proposaturiko mozerroetako batzuk: momia, sukaldaria, ardia, dantzaria, ...

Patio orduan 2. mailako tutore guztiak elkartu eta ikasleek proposatutakoa kontuan hartuz “tutu” txuri bat jarriz balleteko dantzariz mozerrotzea erabaki dute. Orduan, ikasleak patiotik bueltatzean, tutoreak irakasleek hartutako erabakia zein izan den esan die, eta mutil guztien ezezkoa jaso du: 3M ikasleak esan du ez dela inolaz ere dantzariz mozerrotuko, 13M ikasleak bere amak tutu bat jartzen utziko ez diola bota du,

12M ikasleak lotsa handia ematen diola eta ez mozorratzea nahiago duela esan du, ... Hori ikusita, tutoreak tutua nork jarri nahi ez duen galdetu die eta mutil guztiek eskua altxatu dute.

Azkenean batzuk sukaldariz, beste batzuk pilotariz eta gainontzekoak dantzariz joatea adostu dute, baina dantzariz joan nahi zuten bakarrak neskak zirenez, talde bakoitzean neskak eta mutilak egotea erabaki dute talde bakoitzean nor egongo zen adosteko zozketa eginez: 2N, 3M, 4N, 14M eta 15N pilotariz joango dira, 1M, 8M, 9N, 11M eta 16N sukaldariz, eta 5M, 6N, 7M, 10N eta 12M, dantzariz. 7M ikasleak jaialdi egunean bera eskolara etorriko ez dela esan du, eta 12M-k tuturik gabe ez bada mozorratuko ez dela. 13M ikaslea, berriz, arrazoi erlijiosoengatik ez da mozorratuko.

